

GUaiXE.eus



Altsasuko
gaztetxearen
26. urteurrena



Sakanerria >> 6

Urritzolan eta Uharte Arakilen
festak dituzte. **Etxarri Aranatzen,
berriz, feriak.** Azoka, mendi
lasterketa eta aizkolariak, etzi



Sakanerria >> 6



Batukadaren doinuekin dantzan. GOZAMENEZ PROGRAMA.

Sexualitatearen ikuspegia zabaltzen, Gozamenez

>> 3

Josefina Arregi
klinikaren
prestakuntza zikloa >> 5

GettinG Robotika,
NUPEkin elkarlanean,
robota sortzen >> 9

Turismo
ekimenak
antolatzeko
105.600 € >> 8



Bakaikun
galdeketarako
bidean,
Adosgunea >> 5



Industrian
elkarlan
egitasmoen
urratsak >> 9



Ziordian hastera
doa memoria
historikoaren
hilabetea >> 5



Urbanan gora autoak, bihar,
igoeraren 36. aldian >> 13

ZORION agurrak

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.eus
• Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke:
3035 0018 47 0181012564

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!





**DEKOVEN
NAVARRA**
CARPINTERÍA DE P.V.C.

info@dekovennavarra.com
www.dekovennavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · **ALTSASU**
Telf./Faxa: **948 468 360** · Telefono mugikorra: **690 641 860**





Hodei

Astelehenean 13 urte!
ZORIONAK eta ongi ospatu txapeldu!!!
Etxeko guztien partez.



Ekhi

Etxeko txikiena handitzen ari zaigu... Daukazu xarma hori ez dezazula inoiz galdu. Oso oso ondo pasa eta ZORIONAK!!!!

Irailak-lastailak

30-6

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.eus

Musika

Gaudeamus gregoriar abesbatza. Lastailaren 2an, igandean, 12:00etan Aralarko monasterioan.

Antzerkia

Desentxufatuak. Irailaren 30ean, ostiralean, 22:30ean Olatzagutiko kultur etxean. **Tartean Teatra.**

Faboo, el encanto de la imaginación Lastailaren 2an, domekan, 17:00etan Olatzagutiko kultur etxean. **Cia. Escena Creativa.**

Falstaff no cree en la otra vida. Lastailaren 2an, igandean, 19:00etan Lakuntzako kultur etxean. **Tarima Beltza.**

Zinema

Café society. Irailaren 30ean, ostiralean, 22:00etan eta lastailaren 2an, domekan, 20:10ean Altsasuko Iortia kultur gunean.

Mendi irteerak

Mendi taldea eguna. Lastailaren 2an, igandean, 6:30ean Olatzagutiatik. **Sakanako Mendizaleak.**

Bizikleta irteerak

Altsasu-Muskiz-Altsasu (90 km). Lastailaren 1ean, larunbatean, 9:30ean Altsasuko Baratzeko bide plazako lokomotoratik. **Zikloturista taldea.**

San Julian eta Marutegi (42 km). Lastailaren 2an, domekan, 9:00etan Altsasuko Zumalakarregi plazatik. **Barranka txirindulari taldeko mendi bizikleta taldea.**

Erakusketak

Mixed media, sorkuntza eta adierazpenerako beste modu bat. Lastailaren 9ra arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara, Altsasuko Iortia kultur gunean. **Yolanda Arnedoren dekorazio-arteak tailerra.**

Hitzaldiak

¿Entiendes las facturas del gas o de la luz? Lastailaren 6an, ostegunetan, 17:00etan Olatzagutiko kultur etxean. Hizlaria: Mikel Bezunartea. **Iratxe kontsumitzaileen elkarte.**

Literatura

Y todos callaron. Lastailaren 6an, ostegunetan, 18:30ean Ziordiko liburutegian

solasaldia **Toti Martinez de Lezearekin.**

Tailerrak

Mikologia. Lastailaren 1ean, larunbatean, 9:00etan Etxarri Aranazko Larrañeta Elkarteak.

Auzo-baratzak zertarako nahi ditugu? Lastailaren 6an, ostegunetan, 18:00etan Altsasuko Gure Etxea eraikinean. **Herri baratzak arautzeko ordenantzen partehartze prozesua.**

Bestelakoak

Adosgunea Lastailaren 1ean, larunbatean, 18:30ean Bakaikuko udaletxeko goiko aretoan. **Gure Esku Dago.**

Deialdiak

Euskal Presoak Euskal Herrira! Irailaren 30ean, ostiralean, 20:00etan Irurtzun, Uharte Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku, Altsasu eta Olaztin. Hileko azken ostiraleko elkarretaratzea.

Etxean nahi ditugu. Lastailaren 1ean, larunbatean, 20:00etan Etxarri Aranatz. **Etxerat.**

Euskal Presoak Euskal Herrira! Lastailaren 2an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

SAKANA



Euskal Herriko Erdigunea independentisen bilgune izango da

URRIAREN 9RAKO EUSKAL HERRIKO ERDIGUNERA MARTXA ANTOLATU DUTE. BAZKARIA IZANGO DA IRAÑETAN. IZENA EMATEA ZABALIK DAGO.

Aurreko urtean bezala, Iratxo mendi taldeak, Sakanako mendizaleek eta Independentistak sareak Euskal Herriko erdigunera mendi martxa antolatuko dute. Lurraldetasuna aldarrikatzeko helburua du ibilbideak. Hemenetik bi igandera izango da, urriaren 9an. Hiru zutabe aterako dira Beriain tontoretik hurbil, Olibesarioko saroiaren dagoen Euskal Herriko Erdigunerrantz (1.232 m). Lehena Unanuko herriko plazatik abiatuko da, 8:15ean, bigarren zutabea Senosiaingo goikaldeko askatik, 8:45ean, eta, azkena, Irañetako bordatik, 9:30ean. Behin Erdigunera bilduta, ekitaldia egingen da bertan, 11:30ean. Ondoren bazkari herrikoia hartuko du Irañetako bordak, 15:00etan (helduek 10 euro eta haurrek 5). Izena ematea zabalik dago www.independentistak.eus web gunean edo 943 561 853 telefonoan.

Bazkideek deskontua

Bakarra:

4,00€

Bazkideek:

3,50€



Olatzagutiko San Migel eguneko ferriako irudiak



Ostiralero
SAIOA
9:30ean

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Astelehenetik ostegunera
Metropoli forala
9:00etatik 11:00etara

Esataria: **Eneida**

Gaurko gaiak:

- **AEK: ikastaro hasiera**
- **Gozamenez programak 15 urte betetzen ditu**
- **Sakanako bizikleta eguna**



Urriak 1, larunbatean, zuzenean
Osasuna - Las Palmas
18:15etatik aurrera

beleixe 107.3 FM
www.guaixe.eus-en ON LINE

SAKANA

Gozamenez, 15 urte gazteei sexualitatearen ikuspegia zabaltzen

Sexualitatea gizakion dimentsio bat da, aukera asko eskaintzen ditu eta oinarritzkoa da pertsonen garapenerako. Hala ere, faktore askok baldintzatzen dute sexualitatea. Erabakigarrietako bat gizartea da, hark sexualitateari ematen dion trataera. Gozamenez programaren bidez gazteak haien sexualitatearen garapenean inplikatu nahi izan dituzte, ideia murriztaileetatik aldendu eta eskaintzen dituen aukerak bizi ditzaten; horretarako, prozesu pertsonal autonomoak eta harreman pertsonal orekatuak bultzatu nahi izan dira. Gozamenez Sakanako bi arduradunek hari buruzko argibideak eman dizkigute.

Gozamenez programak 15 urte bete ditu aurten Sakanan. Eneka Irizarrek, Burunda mendebaldeko Gizarte Zerbitzuetako prebentzio teknikariak, gogorarazi digu gazteriarren eta sexualitatearen inguruko programa dela; “gazteen sexualitatea ikuspegi positibo eta plural batean lantzen duena. Azken batean sexualitatearen alderdi desberdinak landu, hausnartu, eztabaidatu, agerian jarri nahi dira. Bai gazteen artean bai gizartean”.

Sorreraz

90eko hamarkadan gazteen artean sexualitatea lantzen zutenak Cofesak ziren. Lehen urrats hura 1998an gelditu zen, UPNk hauteskundeak irabazi eta hurrengo egunean. “Hainbat murrizketa egiten hasi ziren, haien artean sexualitatearena. Izena aldatu zuten. Horren atzean murrizketa eta atzerapauso ikaragarria zegoen”. Hala gogorarazi du Blanka Torresek, Altsasuko gazteria teknikariak.

Hori ikusita, “gazteei zuzendutako programa berezi eta plural bat egitea pentsatu genuen”. Torresek azaldu duenez, eredu Gasteiztik hartu zuten. 2.000 urtean Gozamenez programa Iruñean jarri zen martxan. Hura koordinatzen erakunde hauek zeuden: Iturramako Emakumeari laguntzeko Zentroa, Andraize, HIESaren aurkako Batzordea, Itoaledo, Nafarroako Gazte-Kontseilua, Askagintza, Kattalingorrieta Hegoak. Hurrengo urtean iritsiko zen Sakanara. Programa ibarrera ekartzeaz “jende asko” arduratu zela nabarmendu du Torresek: “gogoratzen dut 11 herrietan landu genuela. Batez ere gaztetxeetakoak, feministak, Sare, Oinarritzko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak, institutuak eta ikastolak.

Ordutik, Gozamenez programaren bidez sexualitatea gune publiko eta ohikoetan landu nahi izanda; “azken batean, kalera ateratzea. Sexualitatea momentu oro

agerian dago. Gurekin dagoen zerbait da eta hori kaleratu nahi dugu” azaldu du Irizarrek. Horretarako, Gozamenez programaren barruan “ekintza ezberdinak” antolatu dira. Guztien bidez gazteei adierazi nahi izan zaie “gauza desberdinekin, gozatzeko momentu eta plazerra daukan momentu desberdin askorekin, ari diren hori ere sexualitatea dela. Azken batean, sexualitatea ez da soilik sexu-harremanak. Beste harreman mota batzuk daude”. Hori azaltzeko moduko ekintza “oso desberdinak” aipatu ditu segituan Irizarrek: tailerrak (antzerkia, txalaparta, makilatzea, dantza...), film laburrak egin dira, ur festa goxoak, zentzumen ibilbideak (zentzumenak lantzen ikasteko)...

Ikuspegi hori gazteei helarazteko Torresek azaldu du guztiak trebatuta daudela. Saioa eman behar duenak sexualitatearen inguruko prestakuntzarik ez badu “harekin, gutxienez, saio bat egiten dugu. Helburuak zein diren azaltzen diogu”. Halako tailer bat eta gazte txoko batean eman daitekeena desberdinak direla argitu digu Torresek: “tailerraren barruan, mundu horretan, sexualitateari eta erotikari buruz zer dagoen ikusi eta hortik abiatzen dugu ekintza hori”.

Antolakuntzaz

15 urteko ibilbidean Sakanako Gozamenez programaren antolakuntza “erabat aldatu da”. Teknikariak beti ideiak prestatu dituzte. “Hasieran ideia horiek inongo gaitzengana jotzen genuen eta haiek ixten zuten programa. Gazte askok

parte hartzen zuten”. Torresek iritziak, “ez bakarrik gazteak, gizartea, orokorrean, erabat aldatu da. Orain, normalki, guk prestatzen dugu. Gaztetxokoan komentatzen dugu eta ideien bat sortzen da. Batzar bat egiten dugu eta peñetakoak, gaztetxekoak eta hainbat koadrila elkartzen gara. Programa itxi, aktiboki, guk egiten dugu”.

Herriren batean zerbait antolatu behar denean, lehenik gazteekin harremanetan jartzen direla argitu du Irizarrek; “zer nahi duten jakiteko. Gauza bat ez dugu guk nahi dugulako egiten”. Horrek “normalean” gazteen parte-hartzea bermatzen duela gaineratu du. Sakanan Gozamenez koordinatzeaz honakoak arduratzen dira: Etxarri Aranazko Emakumeari Laguntzeko Zentroko hezitzailea, Altsasuko Gazteria Zerbitzuko teknikaria, Irurtzungo, Etxarriko eta Altsasuko Gizarte Zerbitzuetako Prebentzio teknikariak.

Nolako ikuskera?

Programa indarrean izan den aldiari gazteek sexualitateaz eta erotikaz duten ikuspegiak galdetuta Torresek uste du “oinarritzko gauzak ez direla asko aldatu. Guregun informazio gehiago dute. Erraz ikusteko. Bainagero jarrekerak, emozioak, sentimenduak... ez da horrenbesteko aldaketarik”. Luze-rako lanketa dago aurretik eta Gozamenez programa bitarteko izaten segituko du. Baina gabezia sumatzen du Torresek: “udal edo Nafarroa mailan, beharrezkotzat jotzen dugu gazteei propio zuzendutako zentro bat egitea. Eta, jakina, alde aurretik sexu-heziketa egitea. Horretan, gabeziak gero eta gehiago ikusten dira”.

Irizarrek aurrera begira jarri da: “gure asmoa jarraitzea da. 15 urte bete dituztelako ospakizun berezia egin nahi dugu. Gero segi-



Mila kolore elkarteko kideak.



Film laburren saridunak.

tzeko asmoarekin. Aurtengoa gauza berezia eta handiagoa izanen da. Baina hemendik aurrera orain arte bezala, gauza xumeagoak edo antolatuko ditugu”.

Helburuak

Gazteen bizitzan sexualitateak duen tokia agerian uztea, gune publiko eta ohikoetan. Sexualitatearen ikuspegi positibo, adeitsu eta aberasgarria eskaintzea, bai eta hura adierazteko eta bizitzeko dauden moduen ere. Sexualitatearen hainbat alderdiri buruzko hausnarketa eta eztabaida sustatu nahi du gazteen artean nahiz gazteen eta haien bitartekarien artean (familia, ikastetxea, aisialdia, aisia...), bai eta komunikabideekin ere. Gazteen herrian edo hirian eta komunitatean sexualitatea lantzen duten baliaideak eta elkar-teak ezagutzera ematea.

Urteurren ospakizuna

“Herriarekin ospatu nahi genuen, jende guztiarekin. Eta Flirteart izeneko gala erotikoa antolatu dugu”. Irizarrek aurreratu duenez, Haize Berriak bandak, Zirkus Blai zirkutalde gazteak parte hartuko dute. Ikuskizuna “ezberdina eta polita izanen delakoan gaudete”. Teloia zentzumenen, sententzioen eta gozamenaren mundura bitan zabalduko da Altsasuko lortia kultur gunean lastailaren 31n, astelehenean: 19:30ean gazteendako gala izanen da eta 22:30eko publikoari irekia. Aurreneko emanaldira gazte batzuk gonbidapenarekin joanen dira, “15 urteetan Gozamenez parte hartu duten pertsona, erakunde edo mugimenduei esker eman nahi dizkiegulako”. Emanaldiaren ondoren auzatea ere izanen da haiekin.
+www.guaixe.eus

Sarean

www.gozamenez.com



Aingeru Mikeo

Udazken koloretan egositako ametsak

astekoa

Benito Lertxundiren ahots grabea ari da Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren melodia armonio-tsu eta konpasatuak lagunduta, sendo, 'Udazken koloretan, landen lurrinak zehartakuz, hitaz oroit eta higan nauk'...

Astehenean 35 urte bete ziren aithilzela eta huraxe izandut gogoa, eta bihamunean Gudarien

eguna izan zen, Txiki, Otaegi eta bestehirumilitante ezkertiar fusilatuzituztena, konpromisoaren eta memoriaren eguna, 'Zuhaitz biluziaren gerizpean orpondoa, orbelen hilobi, horiz eta gorritz dena lokarturik, dena lokarturik'.

36ko gudan bidegabeki fusilatuaren memoria, euskal erakundearen eta estatuaren arteko gatazka-

ren bortizkeriaz hildakoen memoria, 'Eskuratu hostoa xume bezain eder; hain soila bere heriotzean, zuhaitz guztiaren bizkortasunez hain bete, non erortze honen duintasunak hirikantatzeran araman'.

Batzuk askatasunaren alde, besteak askatasun egarri hori legez-kotasun kateaz itotzen duen statu quoaren alde, 'Berrero zuhai-

tzari so natzaiok, kezkatu rikote?... joate askearen oparotasunean, betikotasunaren irria zirudik. Irria zirudik'.

Euskal herritarren burujabetza demokrazia kontua baita, eta ez balizko negoziazio baten "kostu politikoa", 'Gatibu naukan denborak, bere baitan egositako amets-tzetaz isekaz bailegoan'.

Euskal Herriak bakea eta biziki-detza irabazi behar ditu etorkizuna eraikitzeko eta ametsak bizitzeko. Bestela, zaurimugarriak ez dira orbainduko, eta ez preso eta iheslariak etxeratuko, 'Udazken koloretan, landen lurrinak zehartakuz, hitaz oroit eta higan nauk, hain soil hire heriotzean, hain xume, adiorik gabeko partitzean'.

barrutik kanpora

Turismoa bai, baina nolakoa?

Uda amaitu zaigu eta gure inguruak lasaitasuna berreskuratzeko premia dauka. Urbasako, Aralarko zein Andiako zelaiek kolore gorriak dituzte. Euri gutxi bota du azken hilabeteetan, eta bertan bizitzen egon diren animalia hazien dek janari eskasia dute. Gutxika gutxika, artzainak zein abeltzainak beraien ganaduak eta artaldeak

menditik jaisten ari dira.

Historiaren parte da abeltzainek zein artzainek egiten duten lanagure ingurugiroa bikain mantentzeko. Sakanaren baliabide garrantzitsuenetako bat, naturala da. Baina ez da bakarra. Baliabide arkitektoniko zein kultural anitzeko eskualdea gara. Eta horren adibide, azken hilabete

hauetan gure ingurua bisitatzera etorri diren milaka pertsonak.

Pertsona hauek Sakanako eskualdearen nortasuna dutegustuko, bertatik bertara ikusita. Badahainbat pertsona urterobere oporrak gure artean pasatzen dituen. Joangaitezen Etxarriko, Arbizuko edota Urbasako kanpinak ikustera. Euskal Herriko per-

tsona askoren bigarren etxea da gurea. Eta pertsona hauek ondo zaintzea ezinbestekoa da.

Orain arte, eskualdeko turismo agenteen arteko ezagutza falta ikaragarria zen. Baina, Plan Estrategikoa medio eta Sakanako Garapen Agentziak erabilitako baliabideak aprobetxatuz, eskualdea nortasun bakar bat eraikitzearen alde agertu da.

Ezinbestekoa da prozesu hau. Batik bat, kontuan eduki behar dugulako, turismoa aberastasun iturri den moduan, zama batzuk ere badakartzalako berarekin.

Eta horretarako, denon artean oso ondo pentsatu behar dugu zein izango den Sakanako turismo eredua.

Azken hilabeteetan Donostiara joateko aukera izan baduzue, adibidez, turismoak gorakada izugarria pairatu duela konturatu zineten. Eta hori da Sakanarentzat nahi dugun turismo eredua?

Guk argi daukagu: ez. Jarrai dezagun eskualdeko turismo jasagarri baten alde lan egiten. Bide onetik goaz.

Sakantzen Sarea

hara zer dien

Ongi-etorri "errefuxiatuak"?

Nor da errefuxiatua?

Definizioaren arabera, pertsona bat errefuxiatua da "arrazoi politiko, etniko, erlijioso, sexual, nazionalitate, edota talde sozial bateko kide izateagatik, bizitzeko toki seguru baten bila bere lurraldetik ihes egin behar duena". Bere bizitza arriskuan izatearen benetazko izua daukana.

Baina errealitate gordina da egoera horretan dauden milaka eta milaka pertsona ez dire-

la errefuxiatuak, ez baitute legezko estatus hori onartua oraindik. Izan ere, nola justifikatu dezake batek egoera horretan dagoenik?

2015ean 65 milioi pertsona ziren desplazatuak. Horietatik, 21 milioi, errefuxiatuak. 2015ean Europa milioi bat pertsona iritsi zen Mediterraneoetik barrena. Horietatik 4.000 bidean hil ziren. Grezian, esaterako, 2016ko irailaren 6an, 60.000 pertsona daude errefuxiatu bal-

dintza onartua izateko zain, gaizki deituriko "errefuxiatuen eremuetan" harrapaturik, inorako irtenbiderik gabe, ez mugimendu askatasunik, ezta erabakitze eskubiderik gabe.

Nazioarteko babesa badutela ziurtatzen dien agiria eskuarte- an ez duten bitartean, ez dira errefuxiatuak izango, ez legez ez inolara. Baina, bitartean, nazioarteko babesa eskatu duten gizakiak dira. **GIZAKIAK BAI.** Ez dezala INORK

AHAZTU HORI.

Eta, bitartean, gaizki deituriko Giza Eskubideen Europak EB-Turkia akordia sinatu du, zeinak egoera delikatu honetan daudenei, berez dagozkien eskubide denak urratzen dizkien.

Zergatik? "Deboluzioak beron" baimentzen dituelako, eta hori debekatuta dago Giza Eskubideen Europako Hitzarmenean. "Convencion de Ginebra" delakoan, espres aipatzen delako

inor ezin dela bere lurraldera bueltatu arazi, bere bizitza arriskuan badu bertan. Azken agiri honetan ere aipatzen delako lurralde jatorriarengatik inor ez diskriminatze printzipioa. Turkiak ez duelako bermatzen errefuxiatuen deboluzio ezaren printzipioa.

Zertan ari gara hortaz?

Eta ondorengoak gu bagara?

Sakanako Immigrazio Zerbitzua

gutunak

Atal honetan ahalik eta iritzi gehienek tokia izan dezaten **1.500 karaktere** (espazioekin) baino gehiago duten gutunik EZ DA ONARTUKO. Karaktere kopuru horretatik gorako gutun

guztiak LABURTU egingen dira. Gutunean izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Gutunak asteazkeneko goizeko

hamarretarako egon behar dira gurean; bestela, ez da aste horretan publikatuko. Guaixe aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorez, aldizkariaren adierazitako esanen eta iritzi

erantzukizunak. Zure iritzia helarazteko: **Foru plaza, 23, 1 Altsasu; gutunak@guaixe.eus edo 948 564 275 telefonoa.**

Festetako zapia

Erkuden Zubiria Zelaia

Txupinazo egunean, irailaren

14an, haurrei zapia ematen zitzaiekan ekitaldian ezin izan ginen egon. Beste egun batean joan ginen eske.

Altsasuko Udalak eta bere Kultura Zerbitzuak ukatu egin digute zapia eta hartutako jarrerarekin minduta sentitzen naiz.

Gure semeak herriaren hain adierazgarri handia den zapia izateak ilusio handia egiten zigun.

Haur altsasuarren kanpo utzi ditzaiekan irizpide zorrotza berraztertzea egokia litzatekeela uste dugu.

Guaixe  

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.eus
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.eus
MAKETATZAILA: Ruben Imaz Alcaide • maketazioa@guaixe.eus
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.eus
eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.eus

ZUZENTZAILA: Felix Alzelai
ARGITARATZAILA: Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILA: Goizeder Anton Iturralde • fundazioa@guaixe.eus
DISEINU ZERBITZUA: GK • Ainhoa Etxeberria Pikabea • gk@gkomunikazioa.eus
ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea • admin@guaixe.eus

LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILAK:

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK 

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikako Salburordetza

>> Bakaiku

Adosgunera joateko deia

Larunbatean, 18:30ean, Bakaikuko udaletxeko goiko aretoan

Gure Esku Dagok bakaikuarrak Adosgunera deitu ditu. Azaroaren 27an egingen den herri galdeketa-galdera erabakiko da biharko batzarrean. Herritarrek euren proposamenak elkartean, Koxko tabernan, estankotan eta mediku kontsultategian jarritako ontzietan gaur gauera arte egin ditzakete. Etxe guztietara banatutako inkestak bete behar dira horretarako. Horiek eta batzarrean sortzen diren proposamenak aztertu

dituzte eta denen artean galdera adostuko dute.

Azaroaren 27an 300 bat bakaikuarrak izanen dute botoa emateko aukera. Aldez aurretik, 146k babesa adierazi diote. Bakaikuko Gure Esku Dagok "galdeketa elkargune anitz, garden, parte-hartzaile eta zabala izatea nahi dugu". Horregatik, bakaikuar guztiak inkestak betetzera eta Adosgunean parte hartzera gonbidatu dituzte. "Bakaikuar guztiak galderarekin gustura gelditzea oinarritzeko eta ezinbesteko-

Abestia

Azaroaren 27ra begira Bakaikuko Gure Esku Dagok bere abestia du du. Mikel Goñik konposatutakoa da. Ricardo Areta lakuntzarraren estudioan grabatu zuten apirilaren 26an. Adin guztietako bakaikuarrak baitira letrari ahotza jarri diotenak. Interneten entzungai dago. Karaoke formatuan ere opatu daiteke.

tzat dugu, eta hori lortu ahal izateko parte-hartze zabala behar beharrezkoa da", gaineratu dute.



Giza mosaikoa Bakaikuko plazan, deialdia egiteko.

>> Ziordia

Memoria historikoaren hilabetea hastera doa

Ziordiko Udalak festen egitarauan aurreratu zuen lastaila memoria historikoari eskainia izanen zela.

Herriko memoria historikoa berreskuratzeko ariketa izan zen festen hasierako etxajua. 13 etxajua, zehatz esanda; 1936ko estatu kolpearen ondoren hildako ziordiar bakoitzeko bana piztu baitzuten haien senideek.

Patxi Bengoetxea alkateak festen hasieran esan zuen ekitaldiak "balio dezala zauriak ixteko, baldin badaude, eta ahaztu ez gaitzen." Festen egitarauan gaineratu zuen: "oroitzapen honek balio dezala herri txiki handi honetan bizi garen pertsona guztien arteko lotura lortzeko".

Egitaraua

- >> **Lastailak 1, larunbata 10:30ean** Mural margotzea Maider Urretabizkaia artistarekin, frontoian.
 - >> **Lastailak 6, osteguna 18:30ean** Toti Martinez de Lezearekin Y todos callaron liburuz tertulia, liburutegian.
 - >> **Lastailak 8, larunbata** Sartagudara txangoa. Memoriaren parkean bisita gidatua eta bazkaria.*
 - >> **Lastailak 21, ostirala** Jose Mari Esparzaren hitzaldia, bideo-gelan.
 - >> **Lastailak 30, domeka** Pleno berezia eta hildakoei eta erreprelatuei aitortza ekitaldia.
- * Helduek 15 euro, haurrek 10. Izen ematea udaletxeko idazkaritzan eta tabernetan.



Eraildako senideak txupinazo egunean.

>> Etxarri Aranatz / Altsasu

Dementzia duten pertsonak zaintzen ikasteko

Josefina Arregi klinikako profesionalak euren jakintza Etxarri Aranatzko eta Altsasuko jubilatuei elkartean azaltzen hasi dira

Joan den urtean hasitako bideari segituz, Josefina Arregi klinikak bere jakintza partekatzeko zikloa antolatu du. Haren bidez dementzia gaitzak dituzten pertsonen eta haien familien bizi kalitatea hobetu nahi dute. Horretarako, gaixo horiei zer nolako arreta eta zaintzak eman

behar zaizkien azalduko dute zikloan. Zahartze osasuntsuan eta gaitz neurodegeneratiboen prebentzioan eta zaintzan interesa duten pertsonak gonbidatuta daude zikloko saioetan parte hartzera. Klinikak hura antolatzeko Etxarri Aranatzko Gure Ametsa eta Altsasuko La Union jubilatuei elkartean laguntza izan du.

Zikloa astelehenean Altsasun hasi zen. Carmen Etxabarri medi-

ku neurologoak Akats kognitiboa. Dementziaren prebentzioa eta tratamendua hitzaldia eskaini zuen. Asteartean, berriz, Itziar Iturrioz erizaina eta Eneka Lizarraga erizaintzako laguntzaileak mendekotasuna duten pertsonak nola mugitu; altxatzeko, lekualdatzeko eta mugitzeko aholkuak tailerra eskaini zuten. Oraindik beste bost saio ditu zikloak.

Egitaraua

- >> **Lastailak 18, asteartea** Estimulazio jolasak (mahai jokoen moldaketa, bereziki kartena). Tailerra: Laura Moreno (neuropsikologoa). Altsasun.
- >> **Lastailak 24, astelehena** Jokabidearen trastornoak duten dementziadun pertsonen erabilera; nola aurre egin urduritasun, oldarkortasun, aurkakotasun eta bestelako egoerei. Hizlaria: Jose Joaquin Roldan (mediku psikiatra). Etxarri Aranatz.
- >> **Azaroak 8, asteartea** Klinikaren eguneko zentroaren zerbitzua. Zer da? Jarduerak, tramitazioa, gizarte laguntzak.

Hizlaria: Josune Lopez de Goikoetxea (gizarte langilea). Etxarri Aranatz.

>> **Azaroak 22, asteartea** Dementzia aurreratua dagoenerako estimulazioa. Elikadura, mugitzea eta beste eguneroko jardunak nola lagundu. Tailerra: Beatriz Villota (okupazio terapeuta). Altsasun.

>> **Abenduak 13, asteartea** Dementzia duten pertsonen autonomia hobetzeko laguntza produktuak, etxeko egokitzapenak eta moldaketak. Hizlaria: Raquel Guerrero (okupazio terapeuta). Altsasun.

* Saio guztiak 18:00etan hasiko dira.

PORTUKO OKINDEGIA
ogiares artisauak

Altsasu
948 563 822
Lantegia
948 467 153
Etxarri Aranatz
948 460 988

Arbizu
Hesteki eta pateak

www.embutidosarbizu.com
Utzubar Industrialdea, E kalea 1-2 • ARBIZU tel. 948 46 06 28 fax. 948 46 10 16

SAKANA



Aralarren hileta meza etzi

San Migel egunarekin jende ugari elkartu zen Aralarko monasterioan atzo. Fededunek iganderako beste hitzordu bat dute mendi gaineko elizan: Aralarko Deun Mikel Goiaingeruaren Kofradiako kide, Anaitasun Elkarteko kide eta ongi-lehildakoen aldeko hileta meza. Etzi izanen da, 12:30ean. Gaudeamus gregoriar abesbatzak elizkizunean abestuko du. Gainera, mezaren aurretik, 12:00etan, abesbatza berak kontzertua eskainiko du. Korral bera izanen da 17:00etako bezpera abestuetak eskainiko dituen.

Uharte Arakil

Sanmigel festen segida

Egitaraua

>> Irailak 30, ostirala
12:00etan Uharte Arakilgo konpartsa.
13:00etan Auzatea.
14:30ean Jubilatuen bazkaria. Eguraldi txarra eginez gero, frontoian izanen da.
16:00etatik 18:00etara Bazkalostea Andoni Gastaminza akordeolariarekin
19:00etan Aizkora apustua plazan: Iker Gorriti- Goizeder Beltza / Juan Jose Lopez-Josu Agirre
20:00etan Auzatea.
20:15etik 22:00etara Puro Relajo taldearen mexikana kontzertua.
22:00etan Zezensuzkoa.
00:30etik 3:30era Dantzaldia Ingo al deu taldearekin.

>> Lastailak 1, larunbata
12:00etan Uharte Arakilgo konpartsa.
13:00etan Auzatea
13:30ean Bertso-poteoa udal plazatik.
14:30ean Bertso bazkaria udal plazan: Sustrai Kolina- Aitor Mendiluze
19:00etan Txokolate-jana.
20:00etan Auzatea.
20:00etatik 22:00etara Kontzertua Danbakhana taldearekin.
22:00etan Zezensuzkoa.
00:30etik 4:30era Dantzaldia Kapriekin.

Urritzola

Bihar festak

Garilaren 26an egindako batzarrean urritzolarrek denak egonen ziren festetarako data aukeratu zuten: lastailaren 1a. Bihar, beraz, goizetik ordu txikiak arte festa giroa izanen da Urritzolan. Gaitariek dianak joko dituzte eta eguerdiko hamabitakora elkartuko ditu urritzolarrek eta bisitariak. Otamena Zizurko Galtzagorri txarangak girotuko du. Ondoren, oilo-kaka eta herri jolasak izanen dira (igela, uztai eta txapa). 15:00etan 60 bat pertsona elkartuko dituen herri bazkaria izanen dute. Bazkaldu ondoren mus, partxis, bingo eta dantza txapelketak izanen dira. Zezensuzkoak gaua argitu ondoren afari auto-gestionatuaren txanda izanen da. Gaueko dantzarako doinuak Txep taldeak eta disko-jartzaile batek jarriko dituzte.

Etxarri Aranatz

Ferietako asteburua



Joan den urtean nora begiratu bazegoen.

Azienda erakusketa, azoka eta kirol probak igandean, tailerrak, auzatea eta beste larunbatean.

Bihar arratsaldetik aurrera zerekin gozatu izanen da Etxarri Aranatz, ferietako asteburua baita. Bihar tailerrek eta ikuskizunekin haurrek arratsalde-pasa ederra izanen dute. Auzateak eta salbeak gau giroako atea zabalduko dute, dantzaldiarekin ordu txikiak arte luzatuko dena.

Igande goiz-eguerdian plazak Etxarriko azienda erakusketa hartuko du: zaldi-behor, lau behi-arra-

za, txerri, asto, ardi eta ahuntz loteak izanen dira ikusgai. Plazan bertan lehen sektoreko ekoizleen eta artisauen salmenta postuak izanen dira, hamarna. Aurrenekoen salmahaietan ardoa, txakolina, taloa, gazta, karakolak, txerrikiak, patatak, baratxuriak, oilaskoak, ezti, ogia eta beste eroste-ko aukera izanen da. Bestalde, artisauen artean honakoak izanen dira: kristala, hurrendako artilezko arropa, boltsoak, zura, adarrak, zilarrezko bitxigintza, uken-

Altsasu

Gaztetxearen 26. urteurrena ospatzera

Asteazkenean beteko da okupazioaren urteurrena. Altsasuko Gazte Asanbladak (AGA)

Altsasuko gaztetxia, bihotz gaztia leloarekin gazte egotzaren 26. urteurrena ospatuko du. Bestalde, herriko ferietan, gaztetxeko giroaz gozatzeko gonbidapena egin dute.

Egitaraua

>> Irailak 29, osteguna
19:00etan La caravana de las ideas dokumentala, gaztetxean.
>> Lastailak 5, asteazkena
18:30ean Etxajua eta merienda, gaztetxean.
19:30ean Asanblada, gaztetxean.
>> Lastailak 6, osteguna
19:00etan Lehen sorospen tailerra, gaztetxean.
>> Lastailak 7, ostirala
17:00etatik aurra Haurren txokoa: txokolate-jana, puzgarria eta zirkoloretsuaren tailerrak.
21:30ean Afaria, gaztetxean.
23:00etan Superella klowna eta Tandem taldearen kontzertua.
>> Lastailak 8, larunbata
11:00etan Kalderete prestaketa.
15:00etan Altsasuko gaztetxearen XXVI. Kalderete txapelketa. Ondoren jokoak.
18:00etan Elektrotxaranga.
21:00etan Kontzertuak: Ebrí Knight eta Zirknik bez!
22:30ean Magrak.
>> Lastailak 13, osteguna
19:00etan Askapenako Andaluziako brigaden hitzaldia, gaztetxean.
>> Lastailak 28, ostirala
23:00etan Kontzertuak: Drugs Rockets eta Dinamo.

Photoshop ikastaroa. Lastailaren 11n, 18an eta 25ean gaztetxean.

Altsasu



Truppea dendaz-denda

Merkataritzaren aurreneko festa ospatu zen ostiralean, Altsasuko Dendarien Elkartek antolatuta. Malabare, trikimakoz eta muskaz osatutako truppea Altsasun

barna ibili zen, dendaz-denda. Batzuetan barrura ere sartzen ziren. Haien atzetik, festaz gozatzeko, herritar segizio bat izan zuten.

SAKANA

Txakurren identifikazio eta txertatze kanpaina

Derrigorrezkoa da 4 hilabete baino gehiago dituzten txakurrek amorruren kontrako txertoa hartu eta mikrotxip bidez identifikatzea. Gainera, txakurrak bi urtero txertatu beharra dago. Horretarako txakurrak identifikatu eta txertatzeko kanpaina egiten da urtero. Aurreneko txakurra eramaten dutenek 40 euro ordaindu behar dituzte identifikazioagatik

eta txertoagatik. Identifikatzeak 30 euro balio ditu eta txertaketak 20. Txakurra jabez aldatu bada, hori jakinarazteagatik 10 euro pagatu beharko dira. Animalien jabeek euren nortasun agiria eta, birtxertatze kasuan, txakurraren identifikazio txartela eraman beharko dute. Txakur erasokorak lotuta eta muturrekoarekin joan beharko dutela gaztigitu dute.

Herria	Eguna	Ordua	Tokia
Olatzagutia	Irailak 30, ostirala	18:30ean	Intsumisio plaza
Lakuntza	Lastailak 1, larunbata	9:00etan	Plaza
Lizarragabengoa	Lastailak 1, larunbata	10:30ean	
Bakaiku	Lastailak 1, larunbata	11:30ean	Auzoa
Iturmendi	Lastailak 1, larunbata	12:30ean	Auzoa
Ziordia	Lastailak 1, larunbata	13:30etan	Frontoia
Urdiain	Lastailak 1, larunbata	18:00etan	Plaza

Etxarri / Altsasu

Errefuxiatuendako barneko arropa eta galtzetinak

AHNA elkarteak, Ayuda Humanitaria Navarra en Acción, errefuxiatuei zuzendutako material bilketa kanpaina martxan du. Negua bertan dela eta barruko arropak eta galtzetinak behar dituztela jakinarazi du. Europara iristen ari diren errefuxiatuendako materiala eman nahi dutenek bi aukera dituzte: Altsasuko frontoiko zeharbidearen 14. zenbakiko udalaren bajeran, astelehen eta ostiralean, 11:00etatik 14:00etara, eta Etxarri Aranatzko udaletxeko estalopeko eskuineko atarian astearte eta ostiralean, 17:00etatik 19:00etara. Frantziako Gobernuak Calaisko errefuxiatu eremua desegin eta handuden pertsonak makina bat egoiztutan banatu nahi dituela iragarri du. Juan Pedro Higuero altsasuarra handik bueltatu berri da eta azaldu digunez, iraileko zentsuaren arabera 11.000 pertsona bizi ziren kanpamentuan. Haietatik 1.179 bakarrik dauden haurrak dira.

Pasa beharreko azterketa teknikoak

Udazken hasierarekin batera, nekazaritzarako ibilgailuen eta motorren azterketa teknikoak iritsi da. Hura egiten duten langileak hurrengo hiru asteetan Sakanan izanen dira beharrezko azterketa horiek egiten.

Egitaraua	Herria	Eguna
	Irurtzun	Lastailak 3, astelehena
	Ihabar	Lastailak 4, asteartea
	Uharte Arakil	Lastailak 5, asteazkena
	Uharte Arakil	Lastailak 6, osteguna
	Uharte Arakil	Lastailak 7, ostirala
	Arbizu	Lastailak 10, astelehena
	Unanua	Lastailak 11, asteartea
	Etxarri Aranatz	Lastailak 13, osteguna
	Lizarraga	Lastailak 14, ostirala
	Iturmendi	Lastailak 17, astelehena
	Iturmendi	Lastailak 18, asteartea
	Alsasua	Lastailak 19, asteazkena
	Olatzagutia	Lastailak 20, osteguna
	Ziordia	Lastailak 21, ostirala

Lakuntza

Palacios Elizondon lautan saritua

Pirinioetako behi eta zezen arrazaren 39. lehiaketa-enkantea hartu zuen Elizondok asteburuan. Abeltzainek lehiaketako 12 kategorietara 170 behi eta zezen aurkeztu zituzten. 70 sari banatu ziren igandean eta haietako lau Ricardo Palacios Andueza lakuntzarrak eskuratu zituen: 6 eta 8 urte arteko umatutako behien 3. saria, 8 eta 12 hilabete arteko txahaletan 4. saria eta umatutako 4 eta 6 urte artean eta 8 eta 12 urte artean behietan ugalketarako saria. Pirinioetako arraza kasik desagertuta egotetik gaur egun 13.000 buru izatera pasatu da. Horretan hobekuntza genetikoa zerikusia du.

» Arbizu

Gaztetxokoa martxan jartzeko lehen urratsak

Begiraleak hartzeko deialdia egin du udalak eta lanak hasi dira

Arbizuko Udalak Kattuka haur eskola azpiko lokaletan gaztetxokoa zabalduko du. 11 eta 14 urte bitarteko gaztetxoei zuzendutako zerbitzua izanen da. Zabalteordutegia erabiltzaileekin adosteko

badago ere, udalean aurreikusten dute "gehienez ere 6-7 ordu astebururo". Bitartean udaleko langileak Gaztetxokoa dena egokitzen ari dira. Karmele Marañon alkateak jakinarazi digunez, 100 metro karratu inguru izanen

ditu. Leiohak eta berogailua jartzen ari dira. Azarorako zabalik nahi lukete zerbitzua.

Zerbitzua martxan jartzeko begiraleak behar ditu Arbizuko Udalak eta, horregatik, deialdia egin du. Izen ematea atzo despeditu zen.



Kattuka haur eskolako fatxada nagusia.

» Altsasu



Hasi berri diren lanek ekarriko dute haur eskola.

Hasi dira haur eskolako lanak

Navarro Villoslada eraikina udaleko haur eskola bihurtzeko lanak hasi dira. Arbeloa eraikuntza enpresako langileak enkofratuak egiten eta patioko zorua jasoz hasi dira lanean. Txirinbulo haur eskola berriak 1 eta 2 urteko umeendako unitatea, 2 eta 3 urteetakoendako unitatea, unitate mistoa, bularrereko umeendako unitatea eta

jangela izanen ditu. Lanek abenduko bigarren hamabostaldirako despeditu beharko ditu. Aurreikusitako lanen herena egin dago, baina lanak 2011tik geldidau. Haien truke enpresak 424.000 euro (BEZ kanpo) jasoko ditu.

Altsasuko haur eskola zazpiegogituzetan egon da orain arte. Joan den urteko irailaren 3an Zelandi esko-

laren sarreraren zeuden moduluprefabrikatuak su hartu eta eskola erabatsuntsituta gelditu zen. Orduetik, Intxostiapunta gaztegunearen beheko solairuan dago. Lanetarako Hezkuntza Departamentuak 250.000 euroko diru-laguntza eman dio udalari. Suteagatik aseguru etxetik jasotakoaren 285.270 euro lan horietara bideratu ditu.

Auzo baratzeak arautzeko parte-hartze prozesua

Atzo hasita, hiru saioetan egingen da

Altsasuko Udalak San Juan ermitaren inguruan dauden auzo baratzeen erabilera arautzeko orde-

nantza egin nahi du. Baina horretarako altsasuarren iritzia jaso nahi dituzenez, parte-hartze prozesua antolatu du. Atzo hasi zen par-

te-hartze prozesua. Haren aurkezpena 17:30ean baratzeetan bertan egin zuten. Ondoren bi tailer etorriko dira. Aurrenekoan baratze-

ak zertarako nahi diren zehaztuko da. Tailer hori ostegunean, 18:00etan, Gure Etxea eraikinean izanen da. Bigarren tailerrean, ekarpenak jasoko dira. Azken saio hori azaroren 17an izanen da, toki eta ordu berean. Argibide gehiago nahi dituenak amaia@garrapo.com e-postaren edo 620 955 454 telefonoaren bidez jarri daiteke harremanetan. Udalak 4.000 euro

bideratu ditu gai honetara.

Altsasun 2013az geroztik daude auzo-baratzeak. Sakanako Langabetuen Asanbladak udalari horretarako eskaera egin zion. Langabetuen egoera larria ikusita lur sail baterako sarbidea izan eta hala jatekoa bermatzeko asmoz jarri zuen ekimena martxan asanbladak. Pobreziaren kontrako tresna bilakatu nahi zuten.

Ludotekan ate irekiak

Ostegunean eta ostiralean, 17:00etatik 20:00etara

Txantxari udal ludotekak asteleheneetik maiatza akabera arte berez-

bitzua eskainiko du. Tokia eta zerbitzua nolakoak diren ezagutzeko udal ludotekak ate irekien jardunaldiak antolatu ditu bi egunez,

ostegunean eta ostiralean. Haur eta gurasoek udal zerbitzua bertatik bertara ezagutzeko aukera izanen dute. Joxepi Marquinez ludotekariak, bestalde, jakinarazi du dago-

eneko izena emateko epea zabalik dagoela. Bi jakinarazpen ere egin dizkigu. Batetik, behin izena eman eta ezeztatu nahi dutenek hilaren 21era arte egin dezakete, bestela

izen emateko dirua ez da bueltatuko. Bestetik, familia bereko bi kide edo gehiago badaude bakoitzak 3 euroko deskontua izanen du (ez da dokumentaziorik aurkeztu behar).

Orduetegia					Prezioa	Jaiotze data
Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	Astean behin Bitan	
17:00-18:30	17:00-18:30	15:00-17:00	17:00-18:30	17:00-18:30	25	2012-2009
	18:30-20:00	15:00-17:00	18:30-20:00	18:30-20:00	Kuota bakarra 5	2008-2004
18:30-20:00		17:00-18:30			Doan, helduak lagundua	2016-2013

» Etxarri Aranatz

Beilatokiarekin jubilatutako elkarrekin ez du inolako jarrerarik hartu

Herrian jarri nahi den beilatokiaren kontura, Gure Ametsa jubilatutako elkarrekin jakinarazi nahi du ez dela ez alde ez kontra azaldu. Horregatik, jubilatutako elkarrekin eskatu du halakorik egin duenari ez dezala horretan segitu. Bestalde, PPK Etxarri duen zinegotzi Juan Antonio Extremerak beilatokiaren sustatzaileak udal bilkuran azalpenak emateko eskatu du.

» Etxarri Aranatz

Bilera gelen eskaera epea zabalik

Etxarri Aranatzko Udalaren eraikina da maisu-maistren eraikina, ikastolak hutsik utzitakoa. Han herriko taldeei eta eragileei bilerak egiteko gelak uztea erabaki du udalak. Horretarako talde eta eragile interesatuek udaletxean eskaera egin behar dute. Epea lastailaren 10ean despedituko da. Udalak bi baldintza jarri ditu: taldeak irabazi asmorik ez izatea eta Etxarri Aranatzten jardutea.

» Bakaiku

Iriondo, kalea

Kontu txiki batzuen faltan, despeditu Bakaikuko Udalak aurten egin behar dituen lanik handienak. Iriondo kaleari 185 metrotan porlanezko zorua jarri diote. Horrekin batera, euri urak hartzeko estoldak ere jarri dituzte kaleerdian. 30.000 euroko aurrekontua izan dute lanek. Hurrengo erauntsiak ez du kaleko kaxkailu guztia Elizpea kalean utziko, eta euritearen ondoren kalea ibiltzeko moduan geldituko da berriz, zulorik gabe. Hori baitzen orain arte gertatzen zena.



Zoru berriaren prestaketa lanak.



SAKANA

Industriarako prestakuntza balioaniztun ikastaroa despedituta

Nafarroako Enplegu Zerbitzua-ren, Nafar Lansareren Iturrondo prestakuntza zentroak antolatuta, Lacunza Kalor Group-ek Altsasun duen lantegiak industria arloko prestakuntza ikastaroa hartu zuen agorriko azken astean eta iraileko aurrenekoan. 11 langabe sakandarrek 40 orduko ikastaro teoriko-praktikoa jaso dute: orgatilla (12 ordu), garabia-zubia (12 ordu), plataforma-jasotzailea (8 ordu) eta lan arriskuen prebentzioa (8 ordu). Ikastaroan 18 pertsonak eman zuten izena baina araudiak 11 pertsonendako ikastaroa izatea behartzen duenez, antolatzaileek hautaketa egin zuten. Ikasleek diplomak edota asistentzia agiriak jaso zituzten astelehenean.

Iturrondo Amaia Bengoetxeak adierazi zuenez, "prestakuntza modulu balioaniztunak lana bilatzeko baliagarriak izan daitezkeela uste dugu". Bengoetxeak azaldu zuenez, "arrakastaren ondoren,

Altsasuko enplegu bulegoa hainbat arlotan dauden premiak atzematuko lanean ari da, ahal bada udazken honetan bertan industria arloko prestakuntza ziklo berriak eskaintzeko". Gaineratu zuenez, "eskualdearen industria, lehiakortasun eta zabalkunde testuinguruak ekimenak tokian bertan diseinatzea eskatzen digu, langabeei, langileei eta enpresei babsa emanez".

Publiko-pribatua

Altsasuko enplegu bulegoko Migel Anjel Jorge Palaciosek "izandako jarreragatik eta emandako erraztasunengatik" eskerrak eman zizkion ikastaroa posible egin zuen Lacunza Kalor Group taldeari. Haren ordezkariak, Jose Julian Garziandiak, lantokia "gustuhandiz" utzi zutela esan zuen. Arratsalde aritu direla argitu zuen, lantegia geldiz egoenean. "Ikastaroa ez da ona soilik langabeendako. Enpresendako ona da lantegie-



Lacunza Kalor Groupeko ikastaroagatik diploma jaso dutenak.

tara trebatutako jendea iristen delako eta gu ez gaudelako jendea prestatzen".

Enplegurako prestakuntza lege berriak arlo publikoaren eta pribatuaren arteko elkarlanean aritzea ahalbidetzen du. Kasu hone-

tan lokalak doan uztea izan da laguntza. Nafar Lansarek ildo horretan sakondu nahi duela jakinarazi du. Bengoetxeak jakinarazi zuenez, "Sakanan prestakuntza zentrorik ez dagoenez, bertako premiak bertan erantzuteko

modua da hau". Prestakuntza ikasleek bizilekutik ahalik eta gertuen emateaz aparte, prestakuntza bertako enpresen beharretara eta ezaugarrietara egokitzeke. Ikastaroak 2.494,19 euroko aurrekontua izan zuen.



Turismo dinamizaziorako 105.610 euro

Ekonomia Garapenerako Departamentuak bisitariak erakartzen dituzten ekimen publikoen eta pribatuen antolatzaileendako diru-laguntzak eman berri ditu. 46 elkarte eta erakunderen artean itzuli beharrik gabeko 629.000 euro-

ko diru-laguntzak banatu ditu departamentuak. Haietako bost Sakanako erakundeendako izan dira. Lagundutako jardueren artean daude ekitaldiak antolatzea, azoketara joatea, prestakuntza, kalitatea bulkatzea eta beste.

Turismoarendako diru-laguntzak	
Erakundea	Diru-laguntza
Plazaola turismo partzuergoa	258,14
Cederna-Garalur	33.666,11
Aralar Mendi elkarte	23.907,61
Bidelagun turismo elkarte	3.846,51
Irurtzungo Udala	932,51
Guztira:	105.610,88



Uharteko Artzai egunak jendetza biltzen du urtez urte.

Etxarri Aranatz

Presoen eta iheslarien etxeratzea aldarrikatuko da

Larunbatean, 20:00etan, plazatik abiatuko da Etxean nahi ditugu! Leloa duen manifestazioa

Etxarri Aranatzko Etxerat elkarrekin deituta egingen da manifestazioa. Elkartetik adierazi dutenez, "gero eta ahots gehiago entzuten dira dispersioaren kontra, garai batean dispersio politika bera bultzatu zuten artean". Sakabanaketa "pasarte mingarritzat" jo eta haren akabera "gertu ikusten den honetan, behar-beharrezkoa da gure muga ideologiko eta politikoetatik kanpo aliatuak bilatzea, eta are gehiago muga horietatik barna ere denok norabide berean bultzatzea".

Etxerat-etik sakandarrei deiegin digute "indarrak elkartu, batu gaituzten dispersioaren aurka, salatu dezagun gaixo dauden preso eta



iheslarien egoera, biderka ditzagun ekimenak, aldarrikatu dezagun euskal preso eta iheslari politikoaren euskal herriratzea".

Elkartez

Etxerat presoen eta iheslarien senide eta lagunei eskaintzen die,

batetik, asistentzia, aholkularitza eta laguntza, hau da, egoera mingarriak sortutako samina txikitu eta leuntzeko tresnak; bestetik, bizipenak eta esperientziak elkartrukatzeko bilgunea; eta, azkenik, lan esparru bat, non informazioa zein testigantzek, salaketek eta aldarrikapenek bat egiten duten.

Etxarrin ere helburu horiekin sortu zen Etxerateko taldea. Erronka handia dute, Nafarroan preso eta iheslari gehien duen herria baita Etxarri. "Sakanako preso eta iheslariak Frantzia eta Espainiako Estatuetan sakabanaturik daude, baina baita itsasoaren bestaldean ere. Horrek sekulako ahalegina eskatzen digu, eta, alde horretatik, ezinbestekoa zaigu Etxerateko taldea indarberritzea".



2016ko Gudari Eguna euripetan.

1975ean fusilatutakoak gogoan

Atzoko egunez duela 41 urte Francoren erregimenak ETAko bikide eta FRAPeko beste hiru fusilatu zituen. Azkenak izan ziren. Fusilatzeak gogoan izan zuten Sakanan. Alde batetik, herrietan izar gorriekin batera Jon Paredesen eta Anjel Otaegiren

argazkiak eta hildako Sakanako ETAko kideen eta militanten argazkiak agertu ziren. Bestetik, iluntzean egindako ekitaldian ehun bat sakandar elkartu ziren, "oroimenetik askatasuna eragiten jarraituko dugun bidea aldarrikatuz".

SAKANA

Enpresen barne antolamendua eta lanaren prozedura hobetzen ikasteko

Enpresa txiki eta ertainetako gerente eta exekutiboek zuzendutako ikastaroa antolatu da

Sakanako Garapen Agentziak eta Sakanako Enpresa Elkarrekin ikastaro bat antolatu dute: antolamendu eredua eta prozesu bidezko kudeaketa. Ikastaroren zati handiena praktikoa izanen da. Sakanako enpresendako aukera ezin hobea da, "enpresen prozesu kudeaketa eta beraien sistemen antolamenduak hobetu" dezaketelako. Behar hori asetzeko helburuz antolatuta da, beraz, ikastaroa.

Honako ezaugarriak biltzen dituzten interes taldeari zuzendua dago antolaketa eredu hau: antolamendu egitura eta prozesu eske ma klabe bat estrategiarekin bat eginda mantentzen ditu; prozesuak hasieratik akabera arte, aztertu, sailkatu, lehenetsi eta kudeatzen ditu, bai enpresa barruan eta bai kanpoan ere; prozesu guztietarako adierazle nabarmenak ezartzen ditu; erabakiak ekintza eta zifretan oinarritzen ditu; jendea inplikatuz hobetu eta berritzen du eta prozesuetan dauden arriskuak identifikatu eta kudeatzen ditu.

Tailerra

Bost saio izanen dira. Lastailaren 14an, ostiralean, programa aurkeztu eta helburuak definituko dira. Azaroaren 14an eta 16an,

Parte hartze mugatua

Bost eta hamar enpresa artean onartuko dira soilik. Izen ematea doakoa da. Izen emateko: personal@aesakana.com - postara idatzi edo 948 468 307 telefono zenbakira hots egin.

Industrian elkarlanerako lehen urratsak



Industrian Elkarlan Esperientziei buruzko jardunaldia izan zen atzo. Bilkura horretan Sakanako Garapen Agentziako (SGA) energia eta industria arduradunak, Aintzane Iriberrri Berrostegetak jakinarazi zuen gaur egun metaleko eta mekanikako enpresa txiki eta ertainen foroa sortzeko aurreneko fasean daudela. Aldi berean, SGA ibarrerako estrategikoak izan daitezkeen proiektuak opatzeko azterketa egiten ari direla aurreratu zuen. Iriberrri Sakanako enpresak eta eragileak "parte hartzera, eta ilusioa eta ezagutza partekatuz" gonbidatu ditu. www.guaixe.eu

astelehenean eta asteazkenean, enpresaren helburuak definitzeko ari buruzko prestakuntza teorikoa emanen da. Azkenik, azaro-

aren 23an eta 30ean, asteazkenean, saio praktikoa egingen da. Saio guztiak 9:00etatik 14:00etara izanen dira.

Altsasu


GettinG Robotika eta NUP robot adimentsu bat egiten ari dira

Industria piezen fabrikazioa hobetzeko robotak ikusmen artifiziala eta lebitazio magnetikoa baliatzen ditu

GettinG Robotika eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa (NUP) robot adimentsu baten prototipoan lan egiten ari dira. Ikusmen artifizialari eta lebitazio magnetikoari esker industriako piezen fabrikazioa hobetzea da azken helburua. Proiektuak 596.278 euroko laguntza ekonomikoa jaso du (315.131 euroko mailegua eta 281.147 diru-laguntza), Ekonomia eta Lehiakortasunaren Ministerioaren B+G+b Industria Programaren barruan, Erronkak-Lankidetzak kategorian.

Urtutako metalen edo mekanizatu bidez sortzen diren metal, plastiko edo beste substantzieta-ko piezak bukatzeko material soberrakina, bizarra, kendu egin behar da. Hau da, irregularitasunak kendu eta piezaren gainazala findu behar da, leuntze edo bukaera ederra lortzeko. Askotan, bizar-kentzeko prozesua eskuz egin ohi da, eta horretarako hainbat lanabes erabiltzen da, landu nahi den piezaren formaren eta material motaren arabera. Enpresa altsasuarren eta NUPen robotak bizar-kentzea hobetu nahi du.

Ikerketa proiektuak Robota Adi-



Unibertsitateko ikerlariak aurrean robotaren zati bat dutela.

mentsuki Gidatzeko Sistema Bisensoriala izena du, BISSE-NINT, eta GettinG Robotikak gidatzen du. Altsasuko ingeniariak enpresak, bizar-kentzeko zelula robotizatuak diseinatu eta fabrikatzen ditu, forja eta fundizioko piezetarako. Proiektuaren helburua bizar-kentzeko lanak robot industrial batek egitea, modu adimentsuan. Robotaren adimenaren par-

te bat lortzen da ikusmen artifizialeko gidatzeko sistema baten bidez.

"Ikusmen artifiziala adimen artifizialaren arlo bat da, zeinaren helburua baita ordenagailu bat programatzea eszena bat aztertu eta interpretatu ahal izateko moduan —azaldu du Jeser Zalba Olcoz NUPeko Ingeniaritza Elektriko eta Elektronikoko Saileko irakasleak—. Bizar-kentzeko proze-

suari aplikatuz gero, ikusmen artifizialeko sistema batek aukera ematen du aztertzen ari den piezaren 3D erreproduktzio bat egiteko, eta hortik abiatuta, gero robotak gidatzeko informazioa lortzen ahal da. Honela, piezen posizio eta morfologia aldaketak konpentsatzen ahal dira, eta informazio hori erabiltzen ahal da robotak bizar-kentzeko prozesuan segitu behar duen ibilbidea egokitzeko".

Kontakturik gabeko piezak

Gainera, robot adimentsuari lebitazio magnetikoa aplikatzen zaio. Metodo horrekin objektu bat airean eskegita egoten da eremu magnetiko baten eraginez. Horrela, bere piezetako bat robotaren gainerakoari lotua gelditzen da kontaktu fisikorik gabe, eta horri esker oztopoak gainditzen ahalko dira fabrikazio-prozesuan. NUPeko Fisika Saila proiektuaren alor horretan lan egiten ari da. Proiektuan parte hartzen duten ikertzaileek lehen prototipo bat prestatu dute eta bigarren robotak diseinatu izanen dira.

Olatzagutia

Kiroldegiko larunbatetarako atezain bila

Eskabideak eta curriculumak Altsasuko enplegu bulegoan aurkezteko epea gaur, 14:00etan, despeditzen da

Udalaren kirol azpiegiturak kudeatzen dituen Erburua Olatzi enpresa publikoak kontratazio baterako deialdia egin du: Erburua kiroldegirako atezain-garbitzailea. Larunbata arratsaldeetan lan egingen luke, 16:30etik 21:00etara, zerbitzuen beharren arabera. Lastai-

lean hasiko da lanean. Lanpostuan interesa dutenek Eskola-Graduatuen titulua edo baliokidea izan eta euskaraz hitz egiten jakin behar dute. Hautaketa egitean kontuan izanen dira aisialdiko begirale titulua edota gorputz- eta kirol-ekintzak gidatzeko teknikari titulua.

Euskara egiaztagiririk ez dutenendako proba astelehenean, 9:30ean, egingen da. Proba teorikoa, berriz, 12:00etan. Biak ere Olatzagutiko udaltxean. Informazio gehiagorako udaltxera deitu daiteke, 948 562 446 telefonora.

SAKANA

Produktuen merkaturatzea nola egin jakiteko

Doako ikastaroan izena emateko: 672 688 591 edo ogorostiaga@sakanagaratzen.com

Sakanako Garapen Agentziak lehen sektorean ari direnei zuzendutako ikastaroa antolatu du. Euren ustiatzearen errentagarritasuna hobetu eta salmenta zuzenera egin nahi dutenei zuzenduta

dago ikastaroa. Sei orduko ikastaroen bidez produktuen merkaturatze egokirako gakoak zein diren azalduko dira. Ikastaroa hilaren 17an eta 19an, astelehenean eta asteazkenean, izanen da, 16:00etatik 19:00etara Arbizuko industrialdean dagoen Utzuganen, Sakanako garapen gunean.



Irurtzungo Bertako Ganadu Azoka.



GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 197 070

Tanatorioak: Altsasu-Irurtzun-Lekunberri-Betelu-Leitza

www.tanatoriosirache.com

Juan Luis Zubillaga Lazkoz



Hurrun egon arren,
beti elkarrekin.

Lakuntzako 1962ko kintoak

Xabier Laskibar Zabala



Hegoak ebaki banizkio
nerea izango zen,
ez zuen aldegingo.
Bainan, honela
ez zen gehiago txoria izango
eta nik... txoria nuen maite..

Zu osabak, izebak eta lengusubek
Zarautz, 2016ko irailaren 27an

Eskelak osteguneko 11:00ak arte jasotzen ditugu.

eskelak@guaixe.eus • 948 564 275





Oroigarriak egiten ditugu

Nahi duzun argazki eta testuarekin

Foru plaza, 23-1 Altsasu • 948 564 275 • gk@gkomunikazioa.eus



guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK	3 LANA/NEGOZIOAK	5 IBILGAILUAK	7 AISIA/KIROLA	NORBANAKOEN IRAGARKIAK Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com -en doan Astekarian: Saldu/erosi, errentan eman/hartu, lan eskaintzak 11€+ BEZ / 3 aste	HARREMANETARAKO Telefonoa: 948-56 42 75 Posta elektronikoa: iragarki@guaixe.eus
2 TEKNOLOGIA	4 DENETARIK	6 HARREMANAK	8 FAMILIA/ETXEA		

HIGIEZINAK

ETXEBIZITZAK

SALDU

Etxarri Aranatzan pisu bat salgai. 84 m² erabilgarriak, berrituta eta eguzkitsua. Alokatzeko aukera. Nire telefonoa 654 23 41 02 da.

OPATUTAKOAK / GALDUTAKOAK

Altsasuko Udaltzaingoak Altsasun galdutako gauza hauek ditu: diru-zorroak, poltsak eta nezeserrak: 31. Audifonoa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko-zorroak: 42. Eurretakoak eta makilak: 19. Belarritakoak, kateak, eskumuturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

Maria Eugenia arrandegiaren aurrean sandalia bat opatu zen abuztuan, gorria eta urdina. Galdu duena Guaixen dago. Tel 948 56 42 75.

IKASTAROAK

Nafar Lansare-k ikastaro hauek antolatatu ditu Altsasuko LH institutoan: CP2- Txirbil-harroketazko mekanizazioa eta CP2- Mantentze-lanak eta muntaia mekanikoa industria-tresneriendako. Hasiera irailean. Plazak libre badaude. Enplegu zerbitzuan galdetu.

Zer egin liburuekin. Yolanda Arrieta idazleak umeekin liburua irakurtzen nola aritu azalduko du lastailaren leian, larunbatean 10:00etatik 13:00etara Sakanako Mankomunitateak Lakuntzan duen egoitzan. Izena-emaiteko: euskara@sakana-mank.eus e-posta helbidera. Matrikula 10 €. Plazak mugatuak.

Desfibriladore ikastaroa Uharte Arakilen (urriak 20-21) eta desfibriladore ikastaroaren birziklapen ikastaroa (urriak 27) Lakuntzan

Sakanako Mankomunitateak, CEIM eta Uharte Arakilgo udalaren laguntzarekin, desfibriladore erabiltzen ikasteko ikastaroa antolatatu du urriaren 20an eta 21ean, 16:30etik 20:30era, Uharte Arakilgo udalarekin. Sorosleei, udal langileei, irakasleei eta sorospenetan interesa daukan edozeini zuzendua dago. Ikastaroan bihotz-birikietako erreanimazioak, itotzeak, epilepsia krisiak, bihotzeak eta bizia arriskuan jartzen duten egoeren aurrean zer egin eta desfibriladorearen erabilera aztertuko dira, besteak beste. Bestalde, arautegiak bi urtero desfibriladore titulua mantentzeko erreziklatze ikastaro bat egitea eskatzen du. Horrela, Nafarroako Gobernuak osasun departamentuak emandako titulua daukaten guztiak, Nafarroako Kirol Institutuak 4 orduko ikastaroa eskainiko die Lakuntzan, Mank-en egoitzan, urriaren 27an, arratsaldeko 16:30etik 20:30era. Bi ikastaroetan urriaren 11 baino lehen eman beharko da izena, Mank-eko Kirol Zerbitzuan (948 464 866 edo kirrolak@sakana-mank.eus). Bi ikastaroetan gehienez 24 parte-hartzaile errendako tokia dago, eta beharrezkoa balitz, itxaron zerrenda egingen litzateke.

Musikoterapia eta psikomotrizitatea, ez gaituendako jarduerak.

Sakanako Mankomunitateko kirol zerbitzuak, Sakanako Ez Gaituen Elkartearen eta Altsasuko Udalaren laguntzarekin, ez gaitasunen bat daukaten sakandarrendako musikoterapia eta psikomotrizitate jarduerak antolatatu ditu. Maite Ulazia Mikeo begiralearen esanetara, hilabetean bitan ordu beteko saioa egingo da talde bakoitzarendako, goizeko 10:00etatik aurrera, Altsasun. Jarduera urrian hasi eta ekainera bitartean luzatuko da. Izena ematea zabalik dago urria-

ren 7ra, Mank-eko kirol zerbitzuan (948 464 866 edo kirrolak@sakana-mank.eus). Ikasturte osoak 50 euroko balioa du, baina Milakolore elkarteak kideei elkarteak ordainduko die jarduerak.

OHARRAK

Gazteei jarritako isunak ordaintzeko. Euskal preso eta iheslarien aldeko abenduaren 30 ekimenean parte hartu zuten gazte sakandarrek 6000 euroko isuna jaso dute. Mozal legearen aplikazio horri elkartasunetik erantzun kolektiboa emateko dinamika martxan jarri dute gazteek. Diru ekarpenak egiteko kontu korrontea zabaldu dute. ES67 3008 0014 2133 8075 1119.

Helduen Nafarroako Euskal kantu Jaialdia. Udazkenean izanen da. Izena eman nahi duenak nafarrokoeskalkantu@gmail.com edo amadominguez@tafallaikastola.org e-postara diatzi dezake, helduen jaialdirako dela adieraziz.

Euskaldun bat euro bat. Nafarroako erresumakoa izan zen Baigorriko Etxaizia gaztelua euskaldunentzat berreskuratu nahi da. Nafararren eta euskaldun guztien etxea izan dadin. Gure kultura, ekonomia, historia eta mugaz gaindiko harremanak antzinarazteko gunea bizia. Informazioa www.euskaldunbateurobat.com

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde. Diru ekarpenak kontu korrontean hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixa 2100 2173 87 0200346965

Volkswageneko langileendako deia. Iruñeko lantegiak zure elkartasun proiektua deialdia bigarren urtez aurkeztu du. Bocalan Biak Bat fundazioak "Lau

zango milaka irri" programa aurkeztu du laguntza deialdi horretara. Proiektua aurkeztu duten Sakanako elkarte bakkarra dira. Fundazioetik Volkswagen-eko langileei 24 proiektuaren aldeko botoa ematera animatu dituzte.

Nicoleren aldeko diru-bilketa. Garun paralisia duen neska olaztiarra atzerrian operatzeko diru-bilketan ekarpena egin nahi duenak kontu korrontea honetan sartu dezake dirua: ES33 2100 5365 2301 0002 9770.

GoiEner Iruñean. Landare utzitako lekuan, Joaquin Beunza, 9 behea, Errotxapean, hilabeteko lehenengo eta hirugarren asteazkenetan, 17:00etatik 19:00etara etor zaitezke informazioa jasotzera, zalantzak argitzera, ekarpenak egitera...

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia azterzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jarduerak sendotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es

Mintzake proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabaldu eta finantzatzeko: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>.

Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina. Informazio gehiago: www.euskonews.com/laguntza, euskonews@euskonews.com, 943 32 22 94 OHARRAK 3MBK kontu korrontea zabaldu du Rural kutxa eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811.

Auzolana Josefina Arregui Klinikari. Parte hartu nahi dutenek 948 56 38 50 (klinika) edo 689 03 51 02 (Pati) tele-

fonoetara hots egin dezatela.

Josefina Arregui klinikako bazkidea izan nahi baduzu, urtean 12 € edo nahi duzun kopurua eman dezakezu. Informazio gehiago amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com edo amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com.

Errefuxiatuendako material bilketa. Adin guztiendako arropak, haurrendako eskola materiala eta jakiak biltzen ditu AHNAK. Altsasun, Frontoi zeharbidearen 14an udalaren duen bajaran, astelehena eta ostiralean, 11:00etatik 14:00etara, eta Etxarri Aranatzan, udaletxeak estalopeko eskubiko atean, astearte eta ostiralean 17:00etatik 19:00etara.

Enplegarritasuna hobetzeko biterkaritza eta aholkularitza zerbitzua. Sakanako Enpresariaren Elkarteak langabeei eta lan bila dabilzanendako duen aholkularitza zerbitzua da. Harremanetarako, 948 468 307 telefonoa.

Eskuratu zure beleixeguaixe txartela. 50€ko kuota urtean eta deskontu eta abantaila paregabeak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman edo bete formularioa gure webgunean www.guaixe.eus.

Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma laguntzeko Eliza katolikoak, Iruñeko eta Tuterako Elizbarrutiaren bidez, Nafarroako herrietan egiten ari zen ondare publikoen inmatkulazioei aurre egiteko sortu zen. Egoitza Iruñeko Estafeta kaleko 57. zenbakian dago. Liburua argitaratu dute, hitzaldiak eman. Laguntza jasotzeko ondoko kontu korrontea zabaldu dute Nafarroako Kutxan: 2054/0142 68 9152623199.

Lugorri produktu ekologikoen elkar-

tea eta denda. Sakanako produktu ekologikoen zuzenean eskuratzeko gunea da Lugorri, inguruko nekazari eta abeltzainekin harremanetan jarriz edo hornitzaile desberdinei eskatuz. Bertako eta urtaroko produktu ekologikoen alde egiten du Lugorri. Lugorriko partaide egiteko 50 euroko kuota bakarra eskatzen da. Lugorriko Lakuntzako dendan (Mankomunitatearen parean) salgai dagoena: fruta, barazkiak, ogia, ardoa, olioak, gazta, arroza, pasta, gailetak, txokolata, haragia, behi esne eta esne begetalak, eztria, arrautzak, garagardoa, lekaleak, ozpina... Informaziorako: 656 711 130 (Gorka).

JAIOTZAK

- **Udane Martinez Pinto,** irailaren 5ean Ziordian.
- **Luis Santillan Males,** irailaren 16an Irurtzunen.
- **Unai Arratibel Lakuntza,** irailaren 22an Altsasun.

EZKONTZAK

- **Francisco Viudez Ferreira eta Edurne Albisu Alberdi,** irailaren 24an Altsasun.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

TRIATLOIA

ALVARO ETA LAKUNTZA DONOSTIAN: 31.
Onditz Oroitz Triatloian (1,5 km igerian, 40
km bizikletan eta 10 km korrikan) 402 tria-

tletaren artean Francesc Godoy nagusitu zen
(1:57:36). Iñaki Alvaro 149.a (2:27:46) eta
Mikel Lakuntza 171.a (2:29:25) izan ziren.

Aizkora

Iban Resano txapelaren bila Etxarrin

Nafarroako II. Mailako Aizkora Txapelketako finala jokatu da igandean, 13:00etan, Euskalerriri pilotalekuan. Iban Resano dorrobarra izanen da Sakanako ordezkari bakarra

Iaz Etxarri Aranazko ferietan Nafarroako Lehen Mailako Aizkora Txapelketako final handia jokatu zen, aurreko urteetan bezala. Floren Nazabal arituz bertan. Berriro bizkar-hezurreko oinazeak sumatzen hasi zen etxarriarra. Iker Vicentek irabazizuen eta Nazabal bigarrena sailkatu zen. "Lesio honekin ezin da, hau danire azken plaza" esan zuen Nazabalek. Etxarrikoaren azken aizkorakadak izan ziren haiek.

Nahiz eta Floren Nazabal erretiratu egon, Etxarri Aranatzek ferietan aizkora txapelketak ekartzeari ez dio uko egin, Etxarriko aizkorarekiko lotura berezia duelako. Horrela, igandean, II. Mailako Aizkora Txapelketako finala izango da jokatu dena, 13:00etan, Euskalerriri pilotalekuan. Iban Resano dorrobarra izango da Saka-



Iban Resano, Lakuntza arituz zenean.

nako ordezkari bakarra. Berarekin batera Mieltxo Mindegia (Zubieta), Joxean Etxeberria (Ziga), Eneko Saralegi (Leitza) eta Oier Kañameres (Arostegi) ariko dira lehian. Aizkolarari bakoitzak bi kamaerdiko, 60 ontzako bi eta oinbiko baterdibitu beharko ditu, eta lehen bi sailkatuak lehen mailara igoko dira.

Mendi lasterketak

Etxarriko ferietan, bargara

41. Mendira Joan-Etorria jokatu da igandean, 11:00etan, Etxarri Aranatzan

Igandean, lastailaren 5ean, Mendira Joan-Etorriaren 41. edizioa jokatu da Etxarri Aranatzan, goizeko 11:00etan, Etxarriko ferietako ospakizunen barruan. Etxarriko Udaberri elkarteak, Etxarri Aranazko Udalak eta Nafarroako Mendi eta Eskalada Federazioak antolatu dute, hainbat laguntzailerekin batera. Aurten ez da Nafarroako Mendi Lasterketen Koparako baliagarria izango.

Izena emateko epea zabalik

1975. urtean sortu zen proba, lagun arteko apustu bat zela medio. Mendira Joan-Etorriak 10 kilometroko luzera du eta 572 metroko desnibel positiboa. Gehiengo altuera mendi gainean, Urbasa-Andiako bargan hartuko du (1.065m). Parte hartzeko gutxiengo adina 16 urtekoa da. Izen ematea www.mendizmendi.com web gunean egin behar da, aurretik (10 euro) edo lasterketaren egunean



Bargan gora.

bertan (15 euro). Dorsalak egunean bertan banatuko dira, 9:00etik 10:00etara.

Aurreko urtean 131 korrikalarik hartu zuten parte. Joseba Larralde (46:16) eta Virginia Perez (55:42) izan ziren txapeldunak.

Sariak (gizon eta emakumeendako)

Lehenengoek: 100€, txapela eta sari berezia

Bigarrenek:

75€ eta sari berezia

Hirugarrenek:

50€ eta sari berezia

Lehen etxarriarrek:

50€ eta XALOK saria

Bigarren eta hirugarren etxarriarrek:

Sari berezia

Lehenbeteranoek: Sari berezia

***Probako errekorra** gaudituz gero (Juan Mari Garinek 2001ean: 42:50): 500€-kosaria, Olalde gaztak eskutik.

Aurten ikusmin handia dago, ohiko sariez gain errekorra gaudituz duenak 500 euroko Olalde gaztak saria jasoko duelako.

Bukaeran korrikalari bakoitzak oroigarri bat jasoko du eta korrikalariendako auzatea izanen da Udaberri elkartearen.

Pilota



Mendi lasterketak

X. OLATZAGUTIA-URBASA MENDI LASTERKETA

Nassiri eta Olazabal nagusi Olaztin

Proba laburrean Mikel Rubio irurtzundarra eta Igone Campos nagusitu ziren

Larunbatean jokatu zen Sutegi klubak Olaztin Udalen eta hainbat babesleren laguntzarekin antolatutako X. Olatzagutia-Urbasa mendi lasterketa. 10 urteak ospatzeko eta lasterketa oraindik erakargarriago egiteko bi nobedade zituen probak. Batetik, ibilbidea luzatu zuten, 23 km-tik 26,33 km-ra (1.833 metroko desnibel positiboa). Eta, bestetik, korrikalari gehiago erakartzeko, 16 km-ko ibilbide laburra (1.122 m desnibel +) prestatu zuten.

147 korrikalari

Korrikalari guztiak, 147, batera atera ziren Clinker paretetik. 95 proba nagusian aritu ziren eta 52 proba laburrean. Bi probek hasieran ibilbide bera zuten: Tontorraundi, Altsasuko portugain, Morterutxo, Zelai handi, Bargagain eta Morterutxo. Kadeteek, gazteek eta ibilbide motzekoek Olaztin bidea hartu zuten. Aldiz, ibilbide nagusikoek mendebaldera jo, Egiburu igo, Ziordiko portutik jarraitu eta Gainsolera iritsi ziren, handik, gailurrera ekialderantz jarraituz, NA-7818aren Urbasako sarreraraino iritsi eta helmugarantz jaisiteko.

Katarain eta Beraza



Proba nagusian iaz Olaztin estreinatu zen Lhoucin Nassiri iritsi zen lehena helmugara (2:57:55). "Proba oso polita da, baina oso gogorra" nabarmendu zuen Logroñoakoak. Minutu pasa atera zion Xabier Zarranzi (2:21:47). Aitor Arenaza izan zen hirugarrena (2:21:47). Zegaman bizi den Beñat Katarain lakuntzarra 5.a sailkatu zen (2:25:09) eta Jose Luis Beraza uhartearra seigarrena sartu zen, probako lehen beteranoa (2:28:09). Emakumezkoetan Alizia Olazabal beterano irundarrak irabazi zuen proba (2:57:55), Amaia Larreategi beasaindarraren (3:03:13) eta Montserrat Vazquez bilbotarraren (3:04:28) aurretik. Olazabalendako bere Olaztin laugarren garaipena izan zen. Olaztin lasterketa, aldi berean, Nafarroako Mendi Lasterketen Banakako Txapelketa izan zen. Xabier Zarranz izan zen Nafarroako txapelduna, Jose Luis Berazaren eta sailkapenean 8.a sailkatu zuen Joxeja Maiza etxarriararen aurretik. Berazak ere lehen beterano nafarraren saria jaso zuen. Emakumezkoetan Beatriz Martinez izan zen txapelduna. X. Edizio honetan sariak ere potoloagoak izan ziren: 400 euro txapeldunendako, 200 bigarrenendako, 150 hirugarrenendako eta 100 laugarrenendako, ohiko trofeoekin batera.

Laburrean Rubio eta Campos txapeldun

Ibilbide laburrean Mikel Rubio irurtzundarra (1:33:34) gailendu zitzaion Gorka Agirrezaldegibetarrari (1:34:23). Raul Audikana olaztiarrak osatu zuen podiuma (1:34:26). Emakumezkoetan Igone Campos gipuzkoarra izan zen azka-

rrena (1:51:42). Zumarragakoak 3 minutu luze atera zizkion Izaskun Beunza olaztiarri (1:55:18). Itsasne Galparsoro legazpiarra izan zen hirugarrena (2:05:41). Lehen promesa Aitor Mozo izan zen (1:36:54), lehen juniorra Asier Estarriaga (1:52:47) eta lehen kadetea Ander Orabengoa (1:58:35).

Sakandarrak X. Olatzagutia-Urbasa Lasterketan

26 KM
Gizonezkoak

1. Lhoucin Nassiri (Logroño): 2:20:40
5. Beñat Katarain (Lak-Zegama): 2:25:09
6. Jose Luis Beraza (Uhar): 2:28:09
8. Joxeja Maiza (Etx.): 2:34:43
9. Ander Unzurrunzaga (Etx.): 2:35:08
10. Josu Unzurrunzaga (Etx.): 2:36:15
20. Fidel Jimenez (Etx.): 2:46:06
22. Juanjo Goikoetxea (Uhar): 2:47:23
31. Fran Araña (Arb.): 2:53:29
35. Gorka Acebes (Olaz.): 2:55:15
46. Alberto Anton (Alts.): 3:08:39
50. Aritz Pellejero (Lak.): 3:13:38
51. Fermin Zornoza (Olaz.): 3:14:43
54. Asier Leiza (Arb.): 3:23:17
55. Iñaki Lacalle (Olaz.): 3:23:43

Emakumeak

1. Alicia Olazabal (Irun): 2:57:55

16 KM
Gizonezkoak

1. Mikel Rubio (Irun): 1:33:34
3. Raul Audikana (): 1:34:26
4. Aitor Mozo (Lak.): 1:36:54
6. Alatz Agirre (Arb.): 1:37:58
13. Xabier Urrestarazu (Etx.): 1:51:21
16. Asier Estarriaga (Etx.): 1:52:47
18. Eduardo Lezea (Olaz.): 1:54:04
21. Ibon Ubeda (Etx.): 1:55:20
22. Ander Orabengoa: 1:58:35
32. Jose Leitza (Arb.): 2:08:00
38. Ander Gurmindio (Olaz.): 2:23:02

Emakumeak

1. Igone Campos (Zumarraga): 1:51:42
2. Izaskun Beunza (Olaz.): 1:55:18
4. Ginesa Lopez (Alts.): 2:06:00
5. Erkuden San Martin (Etx.): 2:07:14
7. Leire Palacios (Alts.): 2:18:07
9. Silvia Perez (Alts.): 2:23:52
10. Isabel Pozueta (Alts.): 2:38:32
11. Marijo Arza (Alts.): 2:38:32
12. Maite Zornoza (Alts.): 2:38:32
13. Jone Pelaez (Alts.): 2:38:32

Ezkurdiak eta Rezustak irabazi dute Sanmateotako Torneoa

Merezitasun handiz, 22 eta 21 irabazi zieten Altuna III.ari eta Albisuri, final ikusgarrian

Sanmateotako Torneoa irabazteko guztira 2.069 tanto jokatu behar izan zituzten Ezkurdiak eta Rezusta txapeldunek: 699 tanto Victorren eta Zabaletaren kontrako lehian, 620 tanto Olaizola II.aren eta Merino II.aren kontrako partida ikusgarrian, eta 750 pilotakada gurutzatu zituzten Altuna III.aren eta Albisuren kontrako final estu, lehiatu eta bikainean. Hasieran errenta polita lortu zuten Ezkurdiak eta Rezustak, 11 eta 6, baina Altuna hobetzen hasi zen eta parez pare ibili ziren bi bikoak.

Ezkurdiaren dejada ikusgarri bati esker 21 eta 19 aurreratu zen bikoak, baina 21era berdindu zuten Altunak eta Albisuk. Albisuk ezin izan zuen azken tantoa ongi bueltatu eta merezitako garaipena lortu zuten Ezkurdiak eta Rezustak. Udako lehen torneo Ezkurdiarendako. Orain lau t'erdia du zain aurrelari arbizuarrek.

Txirrindularitza

23. Sakanako Bizikleta Egunean eguraldiak ateri eutsi zion eta bizikleta festa ederra ospatu ahal izan zuten sakandarrek

Euria zegoen iragarria igandera, baina ez zuten asmatu. Izan ere, goizeko 9:00etan Irurtzundik abiatu zirenetik Altsasura 14:00ak ingurunean iritsi zirenera arte, ateri eutsi zion eguraldiak. "Ordu biak inguruan iritsi ginen Altsasura, pozik, tropel handia. 250 pertsona zeuden aurretik izena emanda probarako, horiei herrietan ibilbidea gehitu eta ibilbidea uzten dutenak gehitu behar zitzaizkien... Guztira 400 pertsona inguruk hartuko genuen parte. Eguraldi kaxkarra esperogenuen, baina ateri eutsi zion eta oso kontentu gaude" adierazi zuten Mank-eko kirol teknikari Amaia Gerrikagoitiak.

Sakanako Mankomunitateko kirol zerbitzuak antolatu zuten eguna, Barranka, Aralar eta Burunda txirrindularitza taldeen eta Irurtzundiko eta Altsasuko Udalen laguntzarekin. Izena eman-

Gozatu ederra bizikletan



Sakanako Bizikleta Egunean bide, xenda eta toki ederretatik pasa ziren Irurtzundik atera eta Altsasuraino heldu zirenak.

da zeudenek goizean goiz hartu zuten autobusa, Irurtzuneraino joateko. Bizikletak kamioietan eraman zituen antolakuntzak.

Adin guztiak

Gazte, heldu, gizon, emakume, haur... bizikleta festa ederra izan zen igandekoa. Nobedade moduan, bi geldialdi egin ziren, bata, laburra, Egiarretako Santiago Itxaspe-

rrin eta, bigarrena, luzeagoa, Uhar-te Arakilgo Zamartzen. "Itxaspe-rriri Sakanako Donejakue bidearen barruan toki garrantzitsua da. Barrutik erakutsi ziguten eliza. Eta Zamartzen, gosaltzen genuen bitartean bertako bizilagunen eskutik azalpenak entzun genituen, oso interesgarriak. Eliza eta museoa ikusi genituen" esan zigun teknikariak.

Beste horrenbeste urte

Ez zen ez behar handirik gertatu. "Erorketa txikiren bat zauri txikiren batekin... ohiko kontuak" aipatu zuten Gerrikagoitiak. Argi du hurrengo urtean ekimenak segida izango duela. "Sakanako Bizikleta Eguna oso osasuntsu dago. 23 urte bete ditu eta gure asmoa da gutxienez beste 23 urtez antolatzea" gaineratu zuten.

Aralar eta Irabiaren 25 urteak ospatzen

Ostegun gauetan La Morean antolatutako ospakizun ekitaldian 200 pertsona inguru bildu ziren

Ostegun arratsaldean Lakuntzako Aralar Txirrindularitza Klubeko arduradunak eta txirrindulariak eta Intersport Irabiako ordezkariak La Morean bildu ziren, bi taldeen arteko harremanak 25 urte bete dituela ospatzeko. Migel Cabodevillak zuzentzen duen enpresak, Intersport Irabiak, 25 urte daramatza Aralar kluba babesten. Eta elkarlanak aurrera jarraituko du.

Aralar Txirrindulari taldea 1980. urtean sortuz, Joxe Anduezar eta beste hainbati esker. 1990-1991 denboraldian gehitu zen Intersport Irabia proiektura, hasiera batean emakumeen taldeko babesle modura. Emakumeen talde indartsua sortu zuten: Alicia Amezarrai, Idoia Lazkoz, Oihana



Egungo Aralar klubeko txirrindulariek talde argazkia egin zuten.

Olaberria, Izaskun Erdozia, Igone Lurgain, Nerea Arrieta... Gehienak bildu ziren festan.

Aralar klubaren urte luze hauetan makina bat txirrindulari trebatu dira. Tartean, profesional izan zirenak: Javier Gartziandia, Jose

Luis Arrieta, Egoi Martinez eta Gorka Verdugo. Ekitaldian Egoi Martinez, Migel eta Pruden Indurain, Jon Bru, Pablo Urtasun, David Garcia eta beste bildu ziren, Aralar klubeko garai bateko eta egungo arduradunekin batera.

Areto futbola

3 irurtzundar 2016-2017 Magna Gurpea Xotan

Lehen mailako areto futboleko 2016-2017 liga urriaren 12an hasiko da. Magna Gurpea Xotak denboraldi berriko aurkezpena egin zuten aurreko astean Civicán auditorioan. Helburuak Espainiako Koparako sailkatzea eta ligako lehen zortzi talderen artean sailkatzea dira, ligako titulua erabakitzeko playoff jokatu ahal izateko. "Eta hortik aurrera, ahal dena" azaldu zuten Imanol Arregi entrenatzaile irurtzundarrak. Denboraldi konplikatu aurrekustean da, ligako gainontzeko taldeak behar bezala berrindartu direlako.

Magna Gurpeko 12 jokalarien

artean 3 irurtzundarrak dira: Asier Llamas atezaina, Roberto Martil atzelaria eta Dani Saldise hegala. Soilik bi baja izan dituzte taldeak, Carlitos eta Pablo Ibarra, eta Eric Martel "Nakata" eta Alvarito dira bi fitxaketa berriak.

Nafarroako Kopa lortu dute

Asteazkenean Nafarroako Areto Futboleko Kopako finala jokatu zuten Magna Gurpea Xotak eta Aspil-Vidalek, Lizarran. Final estu eta zirrarragarrian hiruna berdindu eta gero, luzapenean garaipenaren gola sartu zuten talde berdeak, Nafarroako Kopa lortuz.

2016-2017 Magna Gurpea Xota



Atezainak: Asier Llamas (Irurtzun, 1993) eta Raul Jimenez (Madril, 1996). **Atzelariak:** Araça (Araçatuba, 1984), Víctor (Malaga, 1989) eta Roberto Martil (Irurtzun, 1987). **Hegalak:** Tomoki Yoskikawa (Shiga, 1989), Jesulito (Cadiz, 1989), Dani Saldise (Irurtzun, 1995) eta Alvarito (Alcalá de Henares, 1996). **Hegal-pibotak:** Rafa Usin (Madril, 1987) eta Eric Martel "Nakata" (Bartzelona, 1992). **Hegal-atzelariak:** Javier Eseverri (Otsagi, 1977). **Teknikariak:** Imanol Arregi entrenatzailea (Irurtzun), Migel Hernandez bigarren entrenatzailea, Txuma Sangüesa delegatua, Adonai Perez eta Luis Pelluz fisioterapeutak eta Antonio Vilches laguntzailea. **Presidentea:** Jose Antonio Arregi, "Tatono". Argazkian, Magna Gurpea Xotako asteazkenean, Nafarroako Kopa irabazi eta gero.

Futbola

FEDERATUTAKO TXAPELKETA

PREFERENTE MAILA. 1. multzoa

2. JARDUNALDIA

ARTAJONÉS 2 - LAGUN ARTEA 2
DONEZTEBE 2 - ETXARRI ARANATZ 1
Emozioak bukaerara arte iraun zuten Artaxoan. Villavak faltaz aurreratu zuten Artajonés. Baina Berazari eta Enekeri esker, 1 eta 2 aurreratu zen Lagun Artea 90. minutuan. Tamalez, arbitroak gehitutako denboran, 93.ean, berdindu egin zuten Artajonés.
Donezteben, Etxarrik ezin izan zuen alerik bildu. Paretsu aritu ziren bi taldeak baina Doneztebe aurreratu zen. Atsedendia baino lehen berdintzea lortu zuten Aitorrek. 2. zatian Doneztebek dominatu zuten eta bigarren gola sartu zuten. Etxarrik berdindu ahal izan zuen, baina gol bat balio gabetu zioten jokoz kanpo egoteagatik.

Sailkapena >>

1. Lezkairu	4 p
6. Lagun Artea	4 p
7. Etxarri Aranatz	3 p

Asteburuko jardunaldia

LAGUN ARTEA - DONEZTEBE
(Igandean, 16:45ean, Lakuntzan)
ETXARRI ARANATZ - BERIAIN
(Larunbatean, 16:30ean, Etxarri Aranatz)

ERREGIONAL MAILA. 1. multzoa

1. JARDUNALDIA

ALTSASU 1 - AMAIA 2
Ongi hasi ziren gorritxoak etxean, eta bigarren minuturako Josebak Altsasu aurreratu zuten. Baina Amaiak gora egin zuten eta markagailuari buelta eman zion, 1 eta 2 aurreratu. Altsasuk arriskua sortu zuten baina Amaiak ongi defendatu zuten eta 3 puntuak eraman zituen.

Sailkapena >>

1. Lagunak	3 p
8. Altsasu	0 p

Asteburuko jardunaldia

AURRERA - ALTSASU
(Igandean, 17:00etan, Leitza)

ELOMENDIKO TXAPELKETA

2. JARDUNALDIA

BIDEZARRA 3 - ZALDUA 0

Sailkapena >>

1. Ardoi-Poukas	6 p
8. Zaldua	3 p

Asteburuko jardunaldia

ZALDUA - AGERI
(Igandean, 11:30ean, Lekunberrin)

Botxa



Agustino eta Larraiotz, Binakako Botxa txapelkunak

Asteburuan Irurtzundiko Iratxo elkar-terko botxategiak petanka antzekoa den Binakako Botxa Txapelketako finalak hartu zituen. Final handian, Xabier Agustinok eta Jabier Larraiotzek 15 eta 8 irabazi zieten Iñigo Carballori eta Guillermo Juangori. Eta 3. eta 4. postuetako finalean, Santos eta Julen Iragak 15 eta 7 hartu zituzten menpean Asentsio Galartza eta Mikel Goldarazena.

ELKARTEEN ARTEKOA

Asteazkenean jokoan dago, 18 partaiderekin, Banakako Botxa Txapelketa. Bestalde, asteburuan Elkarte- en Arteko Botxa Jardunaldia hartuko du Irurtzundiko Iratxo botxategiak. Txantrea, Antsoain, Berriozar, Amaia eta Irurtzun taldeak ariko dira.

Automobilismoa

Jaizkibelen motorrak berotzen

Garikoitz Flores hirugarrena izan zen, Lopez de Goikoetxea FL mailako hirugarrena eta lehen nafarra eta Mikel Mendinueta probako lehen junior nafarra

Asteburuan, 38. Jaizkibel Igoera mitikoan, 55 pilotuk lortu zuten proba bukatzea eta 17 erretiratu egin behar izan ziren. Joseba Iraola (Demoncar, R34 Plus) izan zen igorak zituena 5.470 kilometroak azkarren igo zituen (2:39.538). Garikoitz Floresen barketak (BRC B-49) 12 segundo gehiago behar izan zituen (2:51.299) eta hirugarrena sailkatu zen lakuntzarra, probako lehen nafarra. Iban Lopez de Goikoetxea olaztiarra (R5 GT Turbo) sailkapen orokorrean 20.a sailkatu zen (3:11.219), bere mailan, FL mailan, hirugarrena eta FL mailako lehen nafarra. Eta Mikel Mendinueta arbi-zuarrak (Peugeot 205 Gti) 36. postuan bukatu zuen (3:23.974), probako lehen junior nafarra.



Urriaren 8an Katxarro Eguna Bakaikun

Izena ematea zabalik dago

Aurreko urteko arrakasta ikusita, bigarren Katxarro Eguna antolatzea erabaki du Bakaikuko Baka-rrekoetxea elkarteak. Urriaren 8an izango da. Goizeko 10:00etatik aurrera auto klasikoaren topaleku izango da Bakaikuko plaza. Autoak, motorrak, kamioiak, bizikletak... mota guztietako katxarroak biltzea, hori helburua. Bazkaria ere izango da elkartean. Izena ematea zabalik dago urriaren 2ra arte, 680 825 557 telefonoan edo katxarroeguna@gmail.com posta elektronikoa (helduek 20 euro eta hurrek 8 euro).

Txirrindularitza



Ailetz Lasa Arabako erlojupekoko txapelduna

Qesos Albeniz taldeko zieldiarrak 13 segundo ateratzen zizkion Julen Garcia-ri

Larunbatean Arabako Kadeteen Erlojupekoko jokatu zen Murgian (9 km). Burundako Qesos Burundako Ailetz Lasa izan zen txapeldun handia (12:07), Luyando taldeko Julen Garcia-ri 13 segundo eta Toyota Armenia taldeko Jon Sanchez-ri 19 segundo aterata. Qesos Albenizeko Unai Villalobos 11.a sailkatu zen, 1:14ra, eta bere taldekide Iosu Jaka 32.a, 2:07ra. Juniorretan, Qesos Albenizeko Asier Etxeberria 4.a izan zen eta Hodei Zia 10.a.

Automobilismoa

Has dadila ikuskizuna!

36. Urbasako Igoera jokatu da bihar, larunbatean, 13:30etik aurrera. Errepidea gaur, ostiralean, 22:00etan itxiko da. 93 pilotuk eman dute izena

Sakana Motorsport taldeak eta Nafarroako Automobilismo Federazioak antolatuta, 36. Urbasako Igoera jokatu da bihar, larunbatean, 13:30etik aurrera. Urtero moduan, zale asko espero dira. Igorak Nafarroako Mendi Igoeren Txapelketa erabakiko du eta Sportech Iparraldeko Mendi Openarako baliagarria da.

Errepidea gaur itxiko da, 22:00etan

Errepidea gaur, ostiralean, 22:00etan itxiko da. Jakina damotortza askok gaua Urbasan emango dutela, eta antolakuntzak garbitasuna zaindu eta argibideak errespetatzeko deia egin du. Ordu horretatik aurrera, Lizarraldetik edo Araba aldetik sartu beharko dira autoak Urbasara.

5,72 kilometroko igoera

Olazti eta Zudaire arteko NA-718 errepidean jokatu da proba, 38,050 km puntutik 32,220 km puntura (5,72 km), Olaztitik Urbasako portua igo arte. Ibilbideak bi zati dauzka. Lehenengo zatia irteeratik hasi eta "Salto de aguas" izenez ezagutzen den tokira artekoa da. Zati oso azkarra da. Bigarren zatia, aldiz, teknikoagoa da. Bihurgunez betetako zatia da, gehienak ferra bihurguneak edo 180 graduak.

Nafarroako Txapelketan sakandarrak daude buruan

Olaztiko igoera Nafarroako Mendi Igoeren Txapelketako azken proba baliagarria da, txapelketa erabakiko duena. Bihar erabakiko dira kategorian bakoitzeko sailkapenak. Garikoitz Flores eta Iker Palacios txapelketa orokorreko monoplatzetan aurreko postuetan dabilza, Mikel Mendinueta arbi-

Pilotu sakandarrak

Garikoitz Flores (BRC B-49), **Iker Palacios** (BRC05 Evo), **Garikoitz Goñi** (Renault Megane), **Iban Lopez de Goikoetxea** (R5 GT Turbo), **Joseba Aldaz** (Peugeot 205), **Mikel Mendinueta** (Peugeot 205 GT), **Iñigo Zelaia** (BMW 325 E36) eta **Aitor Fernandez** (Seat Ibiza), guztiak Sakana Motorsportekoak.

Mendia

Zeberio Cho Oyu

Cho Oyu (8.201 m) igotzeko bidean, bigarren kanpamendua muntatzea lortu dute Zeberio eta Morenok

Javier Zeberio Arraras bakai-kuarra Himalayan dago, Joanma Romero valentziarrarekin batera, Cho Oyu (8.201m), bere lehen



36. Urbasako Igoera Nafarroako Mendi Txapelketarako eta Sportech Iparraldeko Mendi Openarako baliagarria denez, 10 kategorian ezberdineko ibilgailuek parte hartzeko aukera dute. Autoak Clinker aurreko futbitoko pistan egongo dira, parke itxian, eta asistentzia gunea Erburua kirodegiko aparkalekuan egongo da. Urbasako igoera erakartzen du. Hori diote motor zaleek eta pilotuek. Aurreko urtean 92 pilotu lehiatu ziren eta antolakuntzak Urbasako maldetan eta Olaztin 9.000 zale bildu zirela adierazi zuen. Lasterketa oso estua izan zen eta, azkenean, Javier Villa pilotu asturiarra gailendu zen (BRC, 3:16.613). Garikoitz Flores laugarrena sailkatu zen, lehen sakandarra. Aurten ere antzeko parte-hartzea izanen da, 93 pilotu baitaude izena emanda. Aurreko urteko txapeldun Javier Villa, Pantxo Egozkue, Arkaitz Ordoki, Joseba Iraola eta Garikoitz Flores dira, akaso, proba irabazteko faborito nagusiak.

zuarra Nafarroako Junior Txapelketako lehen postuan doa, Iban Lopez de Goikoetxea FL kategoriako lehen postuan dago... Ea bihar zorrea alde duten gure pilotuek eta Nafarroako podiumera igotzen diren.

Segurtasuna eta garbitasuna

Pilotuen eta ikusleen segurtasuna bermatzea da antolakuntzaren kezka eta helburu nagusia eta horregatik, soilik zehaztutako guneetan kokatzeko eskaria egin zingo da egon. Horretaz aparte, Urbasa-Andia natur parkea dela kontuan hartuta eta inguruarekiko errespetua adieraziz, antolakuntzak norberak bere zaborra jasotzea eskatzen du.

Antolaketa lan handia

Zaila da tamaina horretako ekitaldi bat antolatzea: baimenak lortu, segurtasuna lotu ... Aurrekontu handia behar da proba aurrera ateratzeko, aseguruak eta beste estaltzeko. Hori ongi dakite Sakana Motorsport taldekoek. Antolakuntzan Olaztiko Udalaren, Maisueña gaztetxearen, Guaixe fundazioaren, Open Sportechen eta hamaika komertzio eta babesleren laguntza izan dute.

Sariak

Probaren ondoren sari ematea izango da Clinker jatetxearen parean. Scratch Sariak (txapeldunak trofeoa eta 200 euro, bigarrenak trofeoa eta 150 euro eta hirugarrenak trofeoa eta 100 euro), kategorian bakoitzeko sariak (lehenek trofeoa eta 100 euro) eta pilotu junior nafar onenaren saria (100 euro eta trofeoa) banatuko dira, besteak beste. Sakana Motorsporteko lehen pilotuek ere trofeoa jasoko dituzte.

Zozketa: Los Arcos eta Big Karting

Ekitaldiari babesa emateko, 5 euroren truke sarrerarekin batera jasotako esku-orrian zenbaki bat agertuko da eta automobilismoarekin lotutako sari bikaina zozketatuko da. Irabazleak, batetik, Los Arcosko Nafarroako Zirkuituko pistan Kartingean aritzeko 10 minutuko 2 tanda jasoko ditu, eta, bestetik, Gasteizko Big Kartingean ibilgailu berezietan derrapeak egiteko 3 sarrera bikoitz. Saritutakoaren berri Facebooken (Guaixe), Twitterren (@guaixe) eta Guaixe astekarian emanen da.

Non erabili

JM AGIRRE HARATEGIA

LAKUNTZA

50€ko erosketarekin gero, etxeko produktua opari.

DANTZALEKU TABERNA

ALTSASU

Bazkarietan eta afarietan kafea edo kopa doan.

KAXETA

ETXARRI ARANATZ

% 5eko deskontua irakurketako liburuetan.

KATE INFORMATIKA

IRURTZUN

% 5eko deskontua 30 €tik gorako erosketan.

CITROËN SAN MIGUEL

ALTSASU

Total olioetan %30eko deskontua. Pneumatikoen aldaketan %30 deskontua.

IRUBIDE JATETXEA

ALTSASU

Gosaria (kafea+pintxo edo bolloa+laranja zuku naturala) 2,50€.

SAKANA OPTIKA

ALTSASU

%15eko deskontua graduatutako betaurreko osotan (montura+lenteak). %10eko deskontua beste edozein artikulutan eta ikusmenaren errebisioa doan.

HOSTOAK LOREGINTZA

LAKUNTZA

40 €ko erosketarekin, %10eko deskontua lorontzietan.

ILAI ILEAPAINDEGIA

ETXARRI ARANATZ

Deskontu bereziak.

www.guaixe.eus-en zerranda osoa ikusgai



BAZKIDETZA 50€ 948 564 275

Gernika filma euskaraz ikusteko aukera



Ostegunean, 19.00etan, Altsasuko Iortia kultur gunean. Sarrerak, 3 eurotan, txarteldegian eta www.iortiakultura.com web orrian eskuratu daitezke. Hurrengo bi emanaldiak gaztelaniaz izanen dira


Altsasuko zinema karteldegiko hurrengofilma Euskal Herrian egindako bat izanen da, *Gernika*. Gaurkotasuneko film horren hiru emanaldietatik lehena, osteguneko, euskaraz izanen da, gainontzekoak gaztelaniaz. Koldo Serrak zuzendutako filmak historia gertakari bat oina-

rri hartu du: Condor legio alemaniarra eta Italiako Aviazione Legionariako hegazkinek 1937ko apirilaren 26an Gernikaren aurka egindako bonbardaketa. Errepublikarren bulegoko zentsuraztaile Teresaren (Maria Valverde) eta Henry (James D'Arcy) kazetari amerikarraren arteko harremana du ardatz filmak, erasoaren aurreko eta ondorengo Gernikan girotutako maitasun istorioa. Aktoeren artean daude, besteak beste, Barbara Goenaga, Elena Irureta eta Jon Ariño.

Txistorra pintxo lehiaketako izen ematea zabalik

Arbizuko Txistorra Eguna lastailaren 9an izanen da. Ospakizunaren aurreneko alditik egitarauan txistorra pintxo lehiaketak ez du hutsik egin. Zortzigarren edizioa dagoeneko martxan dago eta txistorra pintxoaren lehiaketan parte hartu nahi duenak astarteko 14:00ak arteko epea du izena emateko. Tabernez eta elkarteez aparte bakarka ere aurkeztu daiteke. Horretarako, udaletxean izena eman beharra dago: 948 460 017 telefonoan edo info@arbizu.eusepostan. Eskabidea egiterakoan pintxoaren izena eman behar da; euskaraz izan behar du.

Lehiakideek Arbizuko txistorra osagai nagusi duen pintxoa prestatu beharko dute. Txistorra udalak eman du eta gainontzeko osagaiak sukaldari bakoitzaren kontu izanen dira. Lastailaren 9an launa pintxo prestatu beharko dituzte, 11:30etik aurrera Aldabide elkarteko sukaldean. Parte-hartzaileen kopurua mugatua da.



Toti Martínez de Lezea Ziordian

Ostegunean, 18:30ean, liburutegian

Lastaila Ziordian memoria historikoaren hilabetea izanen da. Horrekin bat egin nahi izan du Ziordiko liburutegiak eta Toti Martínez de Lezea idazlea gonbidatu du. Gasteiztarrak bere azken lana aurkeztuko du: *Y todos callaron* (2015, Erein). Euskaraz, *Isilpean gordea*. XV, XVI. eta XIX. mendeetan girotutako liburuak argitaratu ondoren, idazleak XX. mendera salto egin zuen azken lanean eta 1936ko estatu kolpearen ondorengo 60 urteetan luzatzen den kontakizuna idatzi zuen.

Gasteizen kokatu du istorioa, 2008ko otsaila. Amelia Zabaletaren testamentuak agerpen harrigarri eta ezusteko bat ateratu du azalera:

ardura handiz gordetako sekretu bat, hildakoaren iraganari eta haren hurbileneko senideei lotua. Jon Martínez de Albeniz ikertzaile xumea arduratuko da misterioa argitzeaz. Baina zer arrazoik eragin dezake familia batentzat hain garrantzizkoa den zerbait ezkutuan gordetzea, XXI. mende bete-betean? Zer bultzatuta iruten du jende arruntak mataza trinko bat, isiltasunaren argudioa oinarri harturik? Azken batean, zer gertatu zen agertoki horietan, orain hirurogeita hamar urte? Toti Martínez de Lezeak bere hiriarren barrenak arakatzen ditu eta ezagunak zaizkion pertsonaiak sortu, isiltasun deseroso baten mende bizi zen gizarte bat irudikatzen.

bazterretik

Mar Gomez Ruiz de Larramendi

Zinemaldiaren inguruko kronika mugagabea

Atzoitzalaren erreinuan egon nintzen. Máximo Gorki

Azken astea itzalen erreinuan igarodut. Ereinu iluna da, beltza. Ez dago leihorik, eta kanpoan ezer ez dagoela dirudi. Askatasunaren esparrua deitu duten honetan, besaulki guztiek bere zenbakia daukate, saiodenak aurretik zehaztu dira. Erabakitako orduan argiak piztu, eta giza bakardadeak gerturatzendira gutxika. Iluna heldu artean, hitzekin josten dute gela. Elkarrizketek ez dute indarririk, itzaltan desegiteko isurtzen dira. Guztiak gaude zerbaiten zain eta ezin negona dasta daiteke. Kanpoan, kalea dago oraindik, baina ezin dugu ikusi; Donostia, baina urrun. Zehaztutako unean, iluna heltzen da, estaltzen ditu ahotsak. Aurpegiak galtzen ditugu eta izenik gabeko arnas bihurtzen gara. Ereinu iluna da, beltza.

Bat-batean izaten da argia, ilunpetatik bereizten gaitu. Argi itzalen artean kokatuta gaude, eta iluntasunetik zeru-lur berriak jaiotzen dira, kanpora begiratzeko leihoak. Baina kanpoan ez dago Donostia,



ezin dugu ikusi. Geografia finkoak desagertu dira; beste nonbaitera begira gaude.

Eta lurraldeak miazten ditugu, zentzuz jositako paisaiak. Isiltasunean, irudien musika entzun daiteke; soinuaren ez tandan, zaporeen dardara ikusi. Itsasoa-ren gatz itsaskorra atzean utzi eta oihanaren sosegu hezean murgiltzen gara. Ereinu iluna da, beltza, eta ez ditu mugarik. Baina saioa amaitzen da, itzalak desegiten dira. Argitasun berrian, aurpegiak eta izanak berreskuratuta, hitzetatik urrun sentitzen gara batzuk; beste batzuk bizitakoari izen abizenak ezartzen dizkiete: zergatiak finkatu, bideak itxi, gertakizunak azaldu, inko-

herentziak salatu...

Eta okurrizten zait agian mintzo diren horiek metrorik gabeko poesia gutxiesten duten berdinak direla, herrialdeen mugak matematikoki marrazten dituztenak eta akaso noizbait erlojuen beharra aldarrikatu zutenak. Itzalen erreinuak ezin du zeharo askea izan: baldintzak behar ditu, hainbat lege. Eta kanpora irteten gara, eta kanpoan itsasoa dago, baina barruan ere itsasoa zegoen eta itsasoak ez ditu legerik. Eta eguzkia erortzen hasia da, eta itzalen erreinua luzatzen ikusten dugu, baina barruan ere itzalak daude, eta itzalek ez dute mugarik: haiek eta ametsek gurutatuko dituzte argiak eta logikak zeharkatu ezin dezaket horiak.

Iortian abonamenduak, aukeran

Altsasuko Udaleko Kultura Zerbitzuak kultura poltsiko guztiei irisgarri egin eta erabiltzaileen fideltasuna saritzeko abonamenduen eskaintza egin du. Haietakoren bat eskuratu nahi duenak lastailaren 23ra arteko aukera izanen du. Abonamenduak osatzen duten ikuskizunetarako sarrera solteak astelehenetik aurrera salduko dira.

Helduendako aurreneko abonamendua udazkenean iragarriak dauden hiru antzezlan (Pepe Viyuelaren *Encerrona*, Yllanaren *Chef* eta Kulunkaren *Solitudes*), dantza emanaldia (Dantzaz konpainiaren *Aureo*) eta zinema sarrera bana 40 eurotan eskuratu daitezke (13 euroko aurrezpena). Hiru ikuskizunerako eta zinema-

rako sarrera bat 33 euroren truke eskuratu daitezke Iortian (10 euroko aurrezpena). Alde batetik, Viyuelaren, Dantzaz-en eta Yllanaren saioak aukeratu daitezke. Bestela, hiru antzerki emanaldiak eta zinemarako sarrera eskuratu daitezke.

Familia abonamendua

Lastailan kulturaz familian disfrutatzen lau abonamendu prestatu ditu Kultura Zerbitzuak. Hala, lastailan iragarritako hiru zinema emanaldien eta Maduixa teatreraren *Dot* antzezlanaren sarrerak 11 euroren truke eskuratu daitezke (4,5eko aurrezpena). Antzezlanaren eta bi zinema sarrera, berriz, 9 eurotan eskuratu daitezke (3ko aurrezpena).

Munduko euskaldun berri zaharrenak jendaurrera

Gaur, 22:30ean, Olatzagutiko kultur etxean

Mikel Martinezek eta Patxo Telleriak bi euskara ikasleren papera jokatu dute *Desentxufatuak* antzezlanean. Biak 40 urte darabate euskaltegia eta "munduko euskaldunberririk zahar-

nak" dira. Euren frustrazio, desio eta kezak jendurrean adieraziko dituzte. Maitasun istoriorik ederrenetan bezala, euskara maite dute eta gorroto. Gorroto dutelako maite dute; maite dutelako, gorroto.

Irudi okerrak ematen dituzten ispiluen antzera, euskara ikasleek euren burua eszenan. Baina eus-

kara ikasleena ez direnena ere bada isla hori. Euskaldunok ditugun desio, keza, eta obsesio berberak dituztelako bi pertsonaiek. Eta obsesioetan, bi nagusi: euskara eta sexua. *Desentxufatuak* antzezlanak *Euskera Sencilloaren Manifestoa* eta *Larruaizetara* antzezlanen eszenarik onenekin osatua dago.



Faboo, edo irudimenaren xarma

Domekan, 17:00etan, Olatzagutiko kultur etxean

Fabookek haur-arima du. Jaio da, ikusten duen guztiaren gaineko jakin-mina piztu zaio, joko eta beldurra deskubritu ditu, dibertigarria eta bihurria da, maitemindu egin da eta, maiteminarekin, samurtu eginda. Bere berezitasuna da bidoi

bat duela buru eta, ondorioz, aurpegiaren espresioa guztiz neutroa dela. Hartara, ikusleak inkontzienteki enpatia sentitzen du pertsonaiekin eta espresio falta hori bere emozioekin betetzen du; lotura oso motibatzailea sortuko da.

Keinu antzerkiko ikuskizun sinple eta adierazkorra da *Faboo*. Keinuen eta hotsen bidez komunikatzen da. Era goxoa, eta islatzen

duen magia horrek ikuslea harapatuko du. Gorputzaren eta ahotsaren bidez, bi antzezlek interpretatzen dute pertsonaia bera eta inguruko objektuak, gorputz batek espresatzeko eta komunikatzeko dituen aukera ugariak erakutsiz eta eguneroko espresioan ohikoak ez diren gorputz-zatiei arreta eskainiz. Escena Creativa konpainiaren antzezlanak da.



Plaza beteta

Etxarri Aranazko abesbatzak, abesbatza txikiak, Burundar Txistulariak eta Etorkezuna dantza eskola. Lau kultur erakunde ikuskizun baterako. Eta jende-

ak erantzun zuen, ikuskizunaz gozatzeko Etxarri Aranazko plaza bete baitzen. Kultur erakundeek elkarrekin hainbat modutan eskainitakoarekin gozatu zuen publikoak.

Falstaffek Lakuntza ezagutuko du

Igandean, 19:00etan, Lakuntzako kultur etxean

Tarima Beltza antzerki taldearen azken antzezlanak da *Falstaff no cree en la otra vida*. Fartsa bat da eta "heriotzak gurekin jolasten duela" erakutsi nahi du. Ihote parranda batean kokatutako tragikomedian protagonista Falstaff, edo Maria Muxarra, da; emakume mozkorti eta hitzontzi bat. "Gaitz pila ditu, baina ez da hiltzen". Herriko aberatsen alabaren laguna da. Hark amarekin ez du erlazio onik. Lagun mina, mutila, apaiza, horren zerbitzaria... horiek guztiak agertuko dira eszenan.

Antzezlanak Francisco Javier Gil Diez-Condek idatzi zuen, 1989an. Eusko Jaurlaritzaren Francisco de Avellaneda saria jaso zuen. William Shakespearek Enrike IV. obran agertzen da



Falstaff; erregearen sasiko seme Hal printzearen bufoi potoloa, lagun borrokazalea, festazalea, andrezalea. Tarima Beltzak emakumezko bihurtu du, Mari Muxarra. Jon Barbarinen zuzendari-

tzapean pertsonaia Mertxe Herrera, Marta Diego, Olibi Galparsoro, Eider Leoz, Nahikari Gonzalez, Juan Manuel Herrero eta Pili Maldonado aktoreek jokatuko dituzte.

Karasatorre
janaridenda · harategia

Artisau erara egindako hestebeteak
Autozerbitzua
Etxeko tripekiak

CONCURSO VAIERO
TXISTORRA
10
NABARROKO TXISTORRA
LEHIAKETA
1. SARIA

Kale Nagusia, 22 · Etxarri Aranatz · 948 460 036

ETXARRI ARANAZKO
FERIAK
2016ko

URRIAK 1 larumbata
URRIAK 2 igandea

ehne

G

asteko >> : eguraldia

	ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 10%	euria: 70%	euria: 20%	euria: 15%	euria: 15%	euria: 20%	euria: 15%	euria: 15%
Min: 13 Max: 22	Min: 12 Max: 21	Min: 13 Max: 18	Min: 12 Max: 20	Min: 12 Max: 20	Min: 11 Max: 18	Min: 11 Max: 17	

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m ²
Irurtzun	27	10	2.8
Etxarri A.	26	7.4	1.4
Altsasu	24	7.5	3.5
Aralar	17.5	6.8	13.3
Urbasa	23.5	6	4.2

: ilargiaren aldia >>

ilberri	ilgora	ilbete	ilbehera
1	9	16	22

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

Bazkide sarituak

- 1.- **Hasier Gonzalez Larrañaga** (Altsasu)
- 2.- **Oihane Etxeberria Alonso** (Lakuntza)
- 3.- **Garbiñe Elizalde Mikelez** (Lizarraga)
- 4.- **Iñaki Goikoetxea Garziandia** (Etxarri-Aranatz)

>> 11 galdera

Aitor Irigoien, Karmele Goikoetxea eta June Bengoetxea

AEK-ko irakaslea eta ikasleak

Testua: Alfredo Alvaro eta Mainer Betelu



Sakanako gida

2017

AZAROAN ZURE ETXEAN

1. Zer moduz hasi du ikasturtea Sakanako AEK-k?
A: Ongi, uste baino hobea. 2015ean 10 talderekin hasi genuen ikasturtea eta aurten 15ekin. 20 ikasle inguru gehiago dira. 15 taldeak behar den bezalako irakasle kopuruarekin sortu dira, borobil-borobilak.

2. Asko eta ongi erakusten duzuenaren seinale.
A: Baietz pentsatzen dut. Klaseak astelehenean hasi genituen eta ekainaren 15ean despedituko ditugu. Norbaitek euskara ikasi nahi badu, kurtsu guztian zehar nahi duenean lasai asko etor daiteke AEK-ra izena ematera.

3. Aurtengo berrikuntza, Altsasuko euskalkia erakusten hasi behar zaretela. Nola sortu zen ideia?
A: Bueno, Altsasukoa baino gehiago Urdaingoa, edo Burundakoa... ez dakit. Aurreko urtean Altsun Eskuaz taldea sortu zen, bertako euskalkiarekin interesa zuena. Norbaitek planteatu zuen ea euskalkia ikasteko ikastaro serio bat egin genezakeen, jendeak izena eman du, eta hor gabilta.

4. Karmele eta June, zergatik animatu zarete Burundako euskalkia ikastera?
K: Lagunekin hitz egiten ideia polita iruditu zitzaidan, euskara gehiago erabiltzeko.
J: Altsun Eskuaz hasi nintzen hasieratik. Gazteok bageneukan euskara batu pedante hori ez den beste euskalki bat erabiltzen hasiteko gogo. Ea aurrera goazen.
K: 9 ikaskide gara, gazteenak 23 urte ditu eta 36 zaharrenak. Gogo handiekin gaude.

J: Astelehenetan eta ostegunetan emango ditugu klaseak, 20:00etatik 22:00etara. Oraindik izena emateko aukera dago. Denak hasi berriak gara, gogo askorekin gaude eta farre batzuk botako ditugu.

5. Mintzakide taldea ere sortuko duzue?
J: Hor gabilta. Mintzakide taldea sortzen bada, klasetara etortzea posiblez dutenek Burundako euskalkian aritzeko momentu hori izango lukete.

6. Zer ikasi duzue orain arte euskalkiaren inguruan?
K: Polita iruditu zitzaidan. Aitorrek erabiltzen duen AEK-ko metodologia oso dinamikoa da, oso egokia.
J: Oso kuriozoso da. Euskara erraz jaso dugu, nire kasuan behintzat, baina euskalkia beste hizkuntza bat bezala hartzea, aditzei bueltak ematea, nahasi samarra da... baina ikasiko dugu.

7. Jakina, euskalkia ez duzue euskaltegian utziko.
K: Euskalkia erabiltzeko ikasiko dugu. Hori da gure helburua, erabiltzea eta inguruko erakustea edo jakin-min hori piztea.
J: Helburu nagusia da euskalkia egunerokotasunean erabiltzea. Ikastarokoek gure artean erabiltzea lortzen badugu... chapeau!

8. Garai batean ospetsuak ziren AEK-ko klaseen ondoren tabernetan egiten ziren mintza praktikak. Asmo hori duzue?
A: 20:00etatik 22:00etara izanda, noizean behin pote batzuk hartzerako joango gara, pintxo potera... Horrela ikasitako praktikak jarri-

ko dugu eta ingurukoek ere ikasiko dute horretan ari garela.

9. Zer alde dago euskara batuko klase bat edo euskalkikoa ematearen artean?
A: Alde ikaragarria. Batuan urte batzuk daramatzat erakusten, dinamika baduzu eta materiala bada. Urdingo, bueno, Burundako hizkera erakusteko materialik ez daukagu baina moldatuko gara. Grabazioak badaude, Guaixeko garai bateko testuak erabiliko ditugu... gehienbat ahozkoa landuko dugu. Komunikazioa lantzea, hizkuntzan jariora sortzea izango da koxka, eta eurek ere belarria egitea. Beste urdiaindarrekin harremanetan jarriko ditugu ikasleak, tertuliak sortuko ditugu... ahozkeraren entzun eta ulertzeko. Urdaingora barnetegira ez, baina arratsalde pasa eramango ditut tarteka.

10. Burundako beste herriren baten eskaera jaso duzue AEK-n?
A: Altsasuko festetan bakaikuar bat etorri zen, Bakaikun euskalkiaren inguruan interesa zutela eta. Taldea sortzeko zer egin behar den azaldu nion.
J: Entzun dugu Bakaikun, Olazti... euskalkiaren inguruan bada biltzala baina ez da ezer egitura. Dena den, bide ona da.

11. Ergoieta, Arruazu, Lakuntza... beste herrietako euskalkiak irakasteko prest egonen zinateke?
A: Nik nire euskalkia erakusten dut, baina taldea sortzen bada eta euskalki jakin hori kontrolatzen duen irakasleren bat baldin badugu, AEK-n atek beti zabalik ditugu. Taldea aterako litzateke.